Erlijio monoteista nagusien sorrera eta garapena

Erlijio eta Kulturen Historia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

Josune Rotaetxe Arrizabalaga
R400 ikastaroa
Artazugoikoko IRALE, 2009-2010 ikasturtea, 2. txanda

Aurkibidea

Sarrera: Zertaz ari gara? 1

1

Lan-proposamena eta lan-kontratua 4

1. Jarduera: Non dago erlijio monoteisten jatorria? 6
2. Jarduera: Politeismotik monoteismora 8

3. Jarduera: Biblia, testu sakratua 13
Politeismotik monoteismora: Bibliako Itun Zaharra 17
Moises eta Jainkoarekiko Ituna 21
Jokoa 23

4. Jarduera: Judaismoa, israeldar herriaren jatorriak 27
Hebrear Biblia 29
Errituak eta juduen sinboloak 33

❖ **Autoebaluazioa eta lanaren balorazioa** 34
Hamar Aginduak filma 38

5. Jarduera: Kristautasunaren jatorriak. Nazareteko Jesus 39
Nazareteko Jesus: Jaiotza eta haurtzaroa 41
Bibliako Itun Berria 42
Jesukristoren bizitza publikoa 46
Jesusen parabolak eta sermoiak 47
Jesusen Zoriontasunak 50
Jesusen mirariak 51
Jesukristoren heriotza 52
Jesukristoren Berpizkundea 54

6. Jarduera: Kristautasuna Jesukristoren ostean 56
Kristautasunaren hedapena eta eboluzioa 57
Lehen kristauen sinboloak 59
Kristauen errituak 60
Kristautasuna erlijio ofiziala: Elizaren antolamendua 61
Kristauen egutegia 62

Agora filma 63
❖ **Autoebaluazioa eta lanaren balorazioa** 64

7. Jarduera: Islama, hiru erlijio monoteista nagusienetariko azkena 69

Bibliografia
70

Sarrera: Zertaz ari gara?

Sinesmenekin zerikusia duten hainbat sinbolo, erreferentzia eta ekintza ditugu gure inguruan, fededun izan ez arren; adibidez, igandeetan jai izatea, edo Gabon gaua ospatzea. Kristautasuna da erlijio nagusia gure Mendebaldeko zibilizazioan, baina beste hainbat erlijio daude munduan zehar, eta haiek ere eragin handia dute fededunen eta gainerakoen eguneroko bizitzan eta kulturan; adibidez, musulmanek barau egitea ramadan garaian; juduek zazpi besoko argimutila sinbolo gisa edukitzea; hinduek hildakoak erre ondoren Ganges ibaira botatzea; edo, euskaldunek zorte ona izateko, eguzki-lorea sarrerako atean jartzea.

Entzun al duzue inoiz honako hauen antzeko adierazpenik?: *"Judas baino faltsuagoa da"* norbait ez dela fidagarria esateko; edo "*Cecatik Mecara dabil"* batetik bestera dabilela adierazteko; bestalde, erabili gabeko CD-ei "CDs vírgenes" deitzen zaie gaztelaniaz, Kristoren amari (Ama Birjinari) erreferentzia eginez. Kontuak kontu, sarritan erabiltzen ditugu horrelako adierazpenak noiztik eta nondik datozkigun jakin gabe, haietan erreparatu ere egin gabe, guztiz barneratuta baititugu.

Eguzkilorearen irudia. http://www.merrutxu.com

- Hasteko, erlijioek gizarte eta kultura desberdinetan duten eraginari buruz zer dakigun hausnartu eta aztertuko dugu. Lagungarria izango duzue honako galdera hauei ahoz erantzutea:

    - Zergatik uste duzue daramatela emakume musulmanek beloa buruan? Moda-kontu hutsa al da?
    - Ba al dago gure hizkeran erlijioarekin zerikusia duen birao edo hitz itsusirik haserrea adierazteko? Zein izan daiteke horren arrazoia edota jatorria?
    - Hitz egiten dugunean hainbat aldiz egiten diogu erreferentzia Jainkoari: "Jainkoak nahi badu", "Jainkoari esker". Zein izan daiteke horren arrazoia?
    - Yoga, Tai Ji eta halako praktikak nahiko ohikoak dira gaur egun gure artean. Ba al dute zerikusirik erlijioren batekin? Zergatik uste duzue hori?

- Aipatu berri ditugun adierazpenen eta ekintzen antzekoak agertzen dira beherago duzuen taulan. Hausnartu ondoren, bakarka, erantzun honako hiru galdera hauei esaldi bakoitzari dagokion laukian:

  a. Ulertzen edo ezagutzen al duzu halakorik? Horrela bada, azaldu ezazu esanahia.
  b. Zuk edo ingurukoek erabiltzen edota praktikan jartzen duzue esaldi, adierazpen edo ekintza horiek adierazten dutenaren antzekorik? Nork, non, noiz…
  c. Zein erlijiori lotuko zenioke bakoitza?

Deabruak gehiago daki zaharraren, okerraren baino:	a.- b.- c.-
Ezin da txerrikia jan:	a.- b.- c.-
Mutil hori **ostie** da, **Kristo**ren emaitzak lortzen ditu eta!	a.- b.- c.-
Ostiraletan, eta Ostiral Santuan bereziki, ezin da haragirik jan.	a.- b.- c.-

Hau da **gurutzea**! Honegaz umeagaz ez dago zer eginik!	a.- b.- c.-
Zirkunzisioa egiten diete gizonezkoei mutil koxkorrak direnean.	a.- b.- c.-
Txarri guztixeri heltzen jake **San Martin** egune.	a.- b.- c.-
Lau emazte edukitzea onartuta dago.	a.- b.- c.-

- Orain, taldeka bilduta, saia zaitezte taulan falta dena osatzen; ondoren, talde bakoitzak idatzitakoa aurkeztuko du, denon artean eztabaidatzeko.

► **Adi**!!! Taldean lan egiteko :

- Guztiok parte hartu
- Guztion iritziak entzun eta kontuan hartu
- Guztion artean banandu lana

Lan-proposamena eta lan-kontratua

Zertaz ari garen zehaztea izan da orain arte landu dugun sarrera horren egitekoa, eta dagoeneko, badakizue zertaz ari garen, eta zer ikasiko dugun hurrengo jardueretan. Taldeka bilduta, honako proposamen hau aztertuko duzue: zer ikasiko dugun, zer lortzeko, nola, eta nola ebaluatuko dugun ikasitakoa.

Ondorengo taulan, zehaztuta duzue lehenengo ebaluaziorako gure proposamenaren nondik norakoa. Zeuon artean eztabaidatu, adostu edota egokitu:

Zer landuko dugu?
▪ Erlijioen eragina gaur egun. ▪ Erlijio monoteisten jatorria. ▪ Biblia: liburu sakratua. ▪ Judaismoa: 1. erlijio monoteista. ▪ Kristautasunaren sorrera.

Nola landuko dugu?
▪ Testuak irakurrita eta aztertuta. ▪ Bakarka eta elkarrekin taldeka lan eginda. ▪ Mapa tematikoak interpretatuta, eztabaidak burututa… ▪ Iritzi-testuak idatzita, modu arrazoituan ahoz azaldu eta defendatuta. ▪ Norberaren lana zein gainerako kideena zintzotasunez ebaluatuta. ▪ Lan guztiak txukun eta estetikari erreparatuta aurkeztuta.

Zertarako izango gara gai?
▪ Inguruko erlijio-elementuak eta jatorria ezagutzeko. ▪ Hainbat informazio-iturri identifikatzeko. ▪ Erlijioaz zerikusia duen hiztegiaz ohitzeko. ▪ Testuen ideia nagusiak laburbiltzeko. ▪ Historia eta erlijioen ekintzak lotzen saiatzeko. ▪ Gainerakoen sinesmen edo fedeak balioesteko.

Zer ikasi dugu? (Ebaluazio-adierazleak)
▪ Ea erlijio-testuak berezitu eta ulertzen dituzuen. ▪ Ea antzinako erlijioen jatorria eta ezaugarriak ezagutzen dituzuen. ▪ Ea mapa tematikoetan erlijioen mugimenduak interpretatzen dakizuen. ▪ Ea Bibliaren inguruan ideia orokorra izatea lortu duzuen. ▪ Ea judaismoari eta kristautasunari buruzko ezaugarri garrantzitsuenak barneratu dituzuen. ▪ Ea ikuspuntu askotarikoei erreparatu eta elkarlanean adosten ohitu zareten. ▪ Ea norberaren eta taldearen iritziak modu argian eta ziurrean defendatzen dakizuen.

Konforme?

Dagoeneko, argi duzue zer ikasiko duzuen, zertarako, nola, eta nola neurtuko dugun ikasitakoa. Baina, behin adostu ondoren, eta lan egiteko prest egonda, konpromisoa hartu behar dugu denon artean. Horretarako, lan-kontratu hau prestatu dugu irakasleak eta zuok bete eta sina dezazuen, ados bazaudete:

Taldearen lan-kontratua
Lan-talde hau osatzen dugunok lehenengo ebaluazioa bukatu arte egingo dugu elkarrekin lan, “Erlijio monoteisten sorrera” aztertzeko eta ikasteko. Helburu hori lortzeko, gure konpromisoa zertan datzan zehaztuko dugu honako puntu hauetan: ▪ Adi eta errespetuz jokatu eskoletan. ▪ Arduraz eta erabakitako moduan lan egin talde barruan. ▪ Interesez eta gogotsu lan egin bakarka. ▪ Autoebaluazioan zein beste kideen ebaluazioan serioski eta zintzo jokatu. ▪ Lanak garaiz eta patxadaz eginda entregatu. ▪ Irakasleak konpromisoa hartzen du beharko duzuen informazio guztia eman, zalantzak argitu, eta beste edozein beharrizanetan laguntzeko. Ikaslearen sinadura Irakaslearen sinadura Data

1. Jarduera : Non dago erlijio monoteisten jatorria?

Hiru erlijio monoteistak. http://ivansalcedo.files.wordpress.com

- Hasteko, hausnarketa txiki bat egingo dugu guztion artean: Zer dakizue politeismoari eta monoteismoari buruz? Eztabaida dezagun guztion artean bi erlijio mota horietaz, eta baita beste sinesmen batzuei buruz ere:

  - Zer motatako sinesmenak zeuzkaten Historiaurrean? Edo, ez zuten oraindik halako kezkarik?
  - Antzinako aztekek eta maiek Erdialdeko Amerikan, eta gaur egun baita beste zenbait tokitan ere (Afrika, Ozeania, Amazonian…), animismoa zuten erlijio nagusi. Aipatuko zenituzkete erlijio mota horren ezaugarri batzuk?
  - Mesopotamia eta Egipto sartu ziren lehenak historian, idazkera menderatu zutenean. Ba al dakizue gizarte politeistak ala monoteistak ziren? Zertan antzematen zaie?
  - Haien ondoren nagusitu eta hedatu ziren Antzinako Grezia eta Erromatar Inperioa. Zer edo nor gurtzen zuten?
  - Venus, Osiris, Atena, Ra… Zer iradokitzen dizuete izen horiek? Halako gehiago aipa ditzakezue?
  - Eta, euskaldunon kasuan, zer-nolako sinesmena zuten gure arbasoek antzinako garaietan?

- Lan-talde bakoitzak mapa tematiko bat egingo du jarraian. Bukatu ondoren, mapa horren iruzkina idatziko duzue. Horrelako mapak egin eta aztertzeko komeni zaizue zenbait aholku gogoan izatea:

  - Hausnartu eta erabaki zer informazio mota adierazi nahi dugun maparen bidez.
  - Pentsatu eta adostu mapan erabiliko ditugun ikurrak (sinboloak, testuak, tamainak, koloreak, eskalak…).
  - Iruzkina egiteko, saiatu azalpen arrazoitua ematen, eta konklusio eta ondorioak ateratzen.

Jarraian, mapak egingo dituzue. Horretarako, talde bakoitzak nahien duen gaia hautatuko du, eta beheko taulan marraztuko du:

A mapa: Politeismotik monoteismorako ibilbidea.

B mapa: Erlijio monoteisten kokapena.



- Mapak egin eta aztertu ondoren, taldeka jarraituko duzue lanean. Idatzi iruzkina azpiko lauki honetan.

2. Jarduera: Politeismotik monoteismora

Politeismoa. http://creencias.ning.com

Antzinako gizakiaren erlijiositatea hainbat jainkosa eta jainkorenganako sinesmenean zegoen oinarrituta. Hala izan arren, argi geratu zaigu gure zibilizazioan eta kulturan hiru erlijio monoteista nagusiek izan dutela eragin handiena: kristautasunak, islamak eta judaismoak. Hortaz, animismo edo paganismotik politeismora, eta azken horretatik monoteismora abiatu zen erlijioen eboluzioa. Hori guztia historian zehar gertatutakoari lotuta dago. Lehen inperioak (Mesopotamia eta Egipto) greziarrek menderatu zituzten, eta azken horiek Erromatar Inperioak hartu zituen mendean. Guztiak ziren politeistak, baina, hala ere, erromatarren garaian jaio zen kristautasuna, hainbat eta hainbat oztopo gainditu ostean. Handik mende batzuetara sortu zen islama Arabian. Erlijio monoteista bi horien jatorria judaismoan zegoen, bi horiek baino 2.000 urte lehenago Palestinan sortutakoa baitzen.

Erlijio-gidariak, http://www.christiantoday.com

Orain, ordenagailu-gelan arituko zarete lanean. Informazioa bilatuko duzue binaka, eta galdera honi idatziz erantzungo diozue:

- Nola eta zergatik heldu zitzaigun euskaldunoi hainbat adierazpenetan zein bizitzako bestelako ekintzetan nabarmena den hiru erlijio monoteista horien eragina?

Hona hemen laguntzatxo bat: *ójala* gaztelaniazko hitza *oxala* esaten da Euskal Herriko leku batzuetan, zerbait gertatzea desiratzen dugula adierazteko. Ba al dakizue nondik datorren hitz hori?

- Ordenagailuaz baliatuz, dagoeneko argi izan behar dituzuen termino batzuk definituko dituzue.

► **Gogoratu**!!! Definitzea da:

- Informazioa labur, zehatz eta argi ematea.
- Beharrezkoa esan eta gainerakoa ezkutatzea.

ANIMISMOA:

PAGANISMOA:





- Iritsi da ikasitakoa modu grafikoan zeuok irudikatzeko unea. Bestalde, gaian sakontzen goazen heinean, lagungarria eta argigarria izango zaizue atal hau. Horretarako, denon artean, hiru erlijio monoteisten kokapenaren mapa tematikoa egingo duzue. Horiekin, horma-irudi bat osatuko duzue.

Lan hori burutzeko, beharrezkoa da zereginak ongi antolatzea eta taldekideen artean banatzea:

- Informazioa lortu eta ordenatu.
- Mapa mutua marraztu paper zuri/marroi handi batean, horman jartzeko.
- Pentsatu, adostu, eta zirriborroa egin lehenbizi.
- Aldez aurretik, adostu eta erabaki erabiliko dituzuen ikurrak, sinboloak…
- Amaitzeko, dena marraztu eta pasatu paperera horma-irudia osatzeko.

- Irakur ezazue honako testu hau banaka, eta hausnartu esanahiari buruz. Ados al zaude? Zerekin bai, eta zerekin ez?

— […] Ez dut uste erlijio gabe bizi daitekeenik.

— Bai eta ez. Norbaiti buruz zehazki ari bagara, posible da horrela izatea. Hainbat pertsona bizi dira inolako sinesmen edo praktika erlijiosorik gabe. Baina, gizateriari buruz orokorrean ari bagara, bat nator zurekin. Ez da posible inondik inora gizakiak erlijioa alde batera uztea.

— Zergatik?

— Bi arrazoi emango dizkizut, niretzako garrantzitsuenak. Lehenengoa "buru barneari" dagokio: gure gainetik dagoena, gainditzen gaituena, beti egin zaigu erakargarria. Hori horrela da, eta izango da beti. Espirituan zein gure bihotzean beti dago halako harreman berezia infinituarekin; harago dagoenarekin. Sakonago edo bigunago sentitzen dugu, baina hor dago. Erlijio guztien gunean, ziur nago infinituarekiko erakarpena dagoela. Sinestun izan ala ez, gure barruan sentitzen dugu, eta ez dago horri uko egiterik.

Bigarren arrazoia "buruko kanpoaldeari" dagokio: kontuan izan, gure bizitzako ekintza garrantzitsu asko ospatzeko (jaiotzak, heriotzak, ezkontzak…), erlijiozko zeremoniak direla nagusi. Ez da kasualitatea, ez horixe! Bizitzara sortu, ezta bizitza utzi ere, ez dugu sekula bakarrik egiten, taldeak edo gizarteak lagunduta baizik.

Nire ustez, aipatutako arrazoiak ezinbestekoak dira. Erlijioak aldatuko dira, edo itxura mudatuko dute, baina desagertu sekula ere ez. Argi dago ezetz!

Droit, R-P., *Erlijioaren azalpena nire alabari.*

- Taldeka bilduta, aldeko eta kontrako arrazoiak prestatu, eta sor dezagun denon artean eztabaida bat.
  Gaia: **Erlijioa: beharrezkoa gizakiarentzat?**

Alde:

Kontra:

► **Adi**!!! Nola prestatu eta gauzatu eztabaida bat:

- Bildu gaiari buruzko informazioa.
- Prestatu eztabaidarako argumentuak.
- Ez aldatu gaia.
- Sortu iritzi bietako taldeak.
- Aukeratu botazioz ikasle-moderatzaile bat: → Hitza eman / Arauak betearazi
- Ezarri eztabaida garatzeko <u>arauak</u>:

Helburutik ez urrundu.
Argi azaldu eta adierazi.
Ikaskideak arretaz eta errespetuz entzun.
Aurreiritziak baztertu.
Argudiatu ez da lehiatu, elkarrizketatu baizik.
Eztabaidatu ez da burla edo irri egin!!!

Eztabaida. http://www.lanacion.com.ar

3. Jarduera: Biblia, testu sakratua

- Hasteko, guztion artean hausnartu eta iritzi trukaketa bat izango dugu:
  - Zer da liburu sakratu bat?
  - Zein erlijioren liburu sakratua da Biblia?
  - Nork eta noiz idatzi zuen Biblia?
  - Historiarekin zerikusia duen liburua al da?
  - Liburu bakarra da? Ba al dakizue nola dagoen osatuta?
  - Entzun dituzue Itun Berria eta Itun Zaharra espresioak?
  - Ezagutzen duzue Bibliako pertsonaiarik, pasarterik?

Bibliaren lehen zatia (**Itun Zaharra**) hiru erlijio monoteisten liburu sakratuetariko bat da, eta horien oinarri eta abiapuntu nagusia. Biblian agertzen diren hainbat elementu historiko ez daude oso argi, transmisioa ahozkoa izan zelako eta denboran asko luzatu zelako. Hala ere, zenbait ikerketa egin ondoren, historiarekin harremanak izan badituela esan dezakegu.

Definizioa

Liburu sakratua: erlijioetako liburuei ematen zaie izen hori, fedearen sustraiak bertan daudelako jasota, eta horrexegatik, ezinbestekoak dira sinesmen bakoitzarentzat.

Biblia euskaraz http://www.editorial.sanpablo.es
Korana http://kinoticias.files.wordpress.com/
Testu sakratua hinduismoa http://i42.tinypic.com

- Hurrengo orrialdean dituzue munduko hainbat erlijioren testu sakratu batzuk. Lan berri bati ekingo diogu orain. Ea gai zareten testu bakoitzari buruzko honako galdera hauei erantzuteko:
  a. Zein erlijiori dagokion
  b. Liburu sakratuaren izena
  c. Adierazi labur-labur zer dioen

Belarra. http://hierbadeltrigo.files.wordpress.com

Erantzunak:

1.- a) _____

b) _____

c) _____

1.- a) _____

b) _____

c) _____

2.- a) _____

b) _____

c) _____

3.- a) _____

b) _____

c) _____

4.- a) _____

b) _____

c) _____

5.- a) _____

b) _____

c) _____



Erlijio-sinboloak http://lh4.ggpht.com

Biblos inguruko mapa.
http://literatura.elbajio.com

Biblia hitzak feniziarren Biblos hirian du jatorria. Hiri horrek garrantzi handia izan zuen antzina papiro merkataritzan. Papiro-orriz egindako erroiluak idazteko erabiltzen ziren, eta grezieraz *biblion* zuten izena. Biblia 66 liburuko bilduma da, eta liburu horiek bi zatitan daude bilduta: Itun Zaharra, 39 liburuk osatzen dute, eta Itun Berria, 27 liburuk.

Itun Zaharra hebreeraz idatzi zuten nagusiki, eta arameeraz (Mesopotamia aldeko antzinako herri eta hizkuntza) zati batzuk; sakratua da, bai juduentzat, bai kristauentzat, eta neurri batean baita musulmanentzat ere. Mila urteko epean idatzi zituzten bertan dauden liburuak.

Itun Berria grezieraz idatzi zuten ehun urteko epean, eta kristauen oinarri espirituala da. Lau Ebanjelioek, Apostoluen Ekintzek, Gutunek eta Apokalipsiak osatzen dute.

Biblia osatzen duten liburuak *http://ubdavid.org/*

- Orain, aukeratu Biblian dauden liburu guztien artetik hiru, eta bildu horiei buruzko informazioa. Bukatutakoan, idatzi bi orrialdeko txosten bat. Horretarako, ordenagailu-gelan binaka arituko zarete lanean, eta aldez aurretik bikoteka adostu beharko duzue liburuen banaketa, ez errepikatzeko. (Goiko argazkian daukazue guztien zerrenda).
  Amaitu ondoren, bikote bakoitzak txostenean bildutako informazioa azalduko die gainerakoei, ahoz.

Politeismotik monoteismora: Bibliako Itun Zaharra

Lehenago ere esan dugunaren arabera, politeismotik monoteismora pasatu zen gizakia. Une jakin batean, jainko politeisten artean jainko bakarra hasi zen nagusitzen, eta horrela, apurka-apurka, juduak (hebrearrak) izan ziren lehenak jainko bakar bat gurtzen. Monoteismo hura ez zen erraz eta arin finkatu. Horregatik, Biblia**ren** Itun Zahar**rean** politeismoaren hainbat erreferentzia agertzen dira oraindik. Ikertzaile batzuk diote lotura egon daitekeela Moises, monoteismoaren sortzaile hebrearraren, eta Akhenaton faraoi egiptoarraren artean. Azken horrek Aton jainko bakarraren gurtzea ezarri zuen Egipton K.a XIV. mendean; baina, urte batzuk beranduago, jendea beren betiko sinesmenetara bueltatu zenean eta Egipto berriz ere lehengo politeismora itzuli zenean, Akhenatonek ihes egin behar izan zuen.

Hainbat dira ikertzaileek eta historialariek gai horri buruz egin izan dituzten galderak:

- Moisesek eta Akhenatonek, bien artean, sortu zuten lehen erlijio monoteista?
- Agian, pertsona bakarra izan ziren biak?
- Moisesek gidatuta Egiptotik ihes egin zutenak, Aton jainkoaren jarraitzaile haiek ote ziren?

Egun, oraindik orain, ikerlariek bi pertsonaiak lotzen dituzten elementu historikoak bilatzen jarraitzen dute.

- Jarraian dituzuen irudi eta laukietan **Itun Zaharreko** liburu eta **ziklo** ezagunenak daude kronologikoki antolatuta. Ondoren, dakizuena erabilita, taldeka osatuko duzue informazio hori.

Adam eta Eva www.elnirvana.wordpress.com

Bibliako lehen liburua Hasiera da. Liburu horretan, munduaren eta gizakiaren sorrera kontatzen da. **Adam** eta **Eva** izan ziren lehen gizona eta lehen emakumea; Jainkoak sortu zituen Eden izeneko baratzean, eta zazpi egun iraun zituen sorrera-prozesuak. Edenetik kaleratuak izan ziren Jainkoaren aginduak bete ez zituztelako, eta betiko sufrimendura bidaliak izan ziren...

Fededun oso gutxik uste dute literalki horrela izan zenik; idatzi sinbolikoak direla diote gehienek. Moisesek idatzi omen zuen Hasiera liburua, eta K.a. 4000-1700 urteen inguruan kokatzen dira han agertzen diren ekintzak. **Noe** eta **Uholdea** adibidez: Adam eta Evaren ondorengoak maltzurregiak zirela konturatu zenean, Jainkoak gizateria zigortzeko uholde izugarria sortu zuen, eta soilik Noe, gizon zintzoa, salbatzea erabaki zuen...

Noe eta Uholdea http://cnho.files.wordpress.com

Babel dorrea http://www.vitruvius.com.br

Geroago, Babilonian zerura iristeko dorre itzela (**Babeleko Dorrea**) eraikitzen ari zirela ikusi zuen Jainkoak. Baina, gizakiak horrelakorik ez lortzeko, haien hizkuntzak nahastu egin zituen, eta elkar ulertzen ez zutenez, proiektua bertan behera utzi zuten babiloniarrek. Ondorioz, arraza eta hizkuntza berekoak bildu ziren, eta horrela osatu zituzten munduko herrialdeak...

Aipatutako pertsonaia eta ekintzei ez zaie orain arte loturarik aurkitu Mesopotamia eta Babiloniako historiarekin. Mitikotzat hartzen dira. Baina, Abrahametik aurrera, badaude historian garai hartako nomadei buruzko aipamenak.



Abrahamen bidaia http://i73.photobucket.com

Matusalem, Noeren aitita, Uholdearen urtean hil omen zen, 969 urte zituela. Noeren ondorengoa izan zen **Abraham**, baina urte asko geroago (K.a. 2000-1500). *Hasiera* liburuaren arabera, Abraham Ur hiritik Kanaanera joan zen bere senide eta animaliekin, Jainkoak hala aginduta. 2.000 km egin omen zituen Jaunaren desioa betetzeko. Geroago ere, Jainkoak eskatuta, bere seme Isaak sakrifikatzeko prest egon zen Abraham, baina…

Abrahamek bi seme izan zituen, bata **Ismael** eta bestea **Isaak**. Musulmanek Ismael kontsideratzen dute euren gurasoa, eta "Islam" izenaren jatorria ere hortxe dago. Isaak, ostera, juduentzat da gurasoa. Hortaz, bata basamortuko arabiarren hamabi tribuen arbasoa da, eta bestea, israeldarren hamabi tribuena. Beraz, musulmanak eta juduak lehengusuak dira tradizioaren arabera, eta biak dira <u>semitak</u> (Sem, Noeren semearen ondorengoak).

Bibliak garai horri buruz dioena ikerketen bidez baieztatu dute zenbait ikertzailek.

Jainkoak Abrahamen leialtasuna saritzeko, itun bat egin zuen harekin…

Abraham http://www.baroque.us

Gaur egun, **semita** terminoa juduei deitzeko erabiltzen da, baina ez da guztiz egokia, hizkuntza semitikoak erabiltzen dituzten guztiei deitu beharko litzaiekeelako horrela: arabiarrei, hebrearrei, aramearrei…

Sodoma eta Gomorra http://spa.fotolog.com/photo

Jainkoak Abrahamekin egindako ituna berritu zuen haren semearekin, Isaakekin. Isaaken semerik berezi eta maitatuena **Jakob** izan zen. Hark hamabi seme izan zituen, eta Israeleko hamabi tribuen patriarkak bihurtu ziren. Geroztik, **Israel** izena erabiltzeko baimena eman zion Jaunak Jakobi. Hamabi seme haietatik **Josef** izan zen maitatuena, eta bera izan zen israeldarrak **—Jainkoaren herri hautatua—** gosetetik ihesi Egiptora eraman zituena.

Zer iradokitzen dizuete Sodoma eta Gomorra izenek?

Hala ere, israeldarrak hurrengo mendeetan gehiegi indartu ziren, eta faraoia beldurtu egin zen; horrela bada, esklabo bihurtu zituen. Laurehun urte iraun zuten israeldarrek Egiptoren mende. Azkenean, Bibliak dioenez, Jainkoak **Moises** hautatu zuen —herri hautatua— askatzeko, eta **agindutako lurraldera** eramateko.

- Bibliako atal hori, Moisesen garaia eta ekintzak jasotzen dituena, beheko irudietan duzue laburbilduta. Saia zaitezte irudiok denboraren ardatzean kokatzen. Eman zenbaki bana irudiei.

Moises eta esklaboak http://www.portalplanetasedna.com *Moisesen ihesa* http://apologista.files.wordpress.com
Moises eta hamar aginduak http://www.obrerofiel.org *Egiptoko ihesa* http://lasteologias.files.wordpress.com
Moises Niloan http://isabelmcristi.files.wordpress.com

Moisesen eta Jainkoaren arteko Ituna

Jainkoak Abraham hautatu zuen herri israeldarra (herri hautatua) sortzeko, eta Moises hautatu zuen geroago, bere desioa gauzatzeko.

Moshé da Moises hebreeraz, eta uretatik salbatua izan dena esan nahi du. Abrahamen Jainko bera agertu zitzaion Moisesi **Jahve** izenarekin, K.a. 1300 urtearen inguruan. Herri israeldarrarekin, bere herri hautatuarekin, ituna berritu nahi zuela esan zion Moisesi. Une hartan, hebrearrek lau mende zeramatzaten esklabo Egipton, Jainkoarekin egindako ituna bete ez zutelako. Obeditu eta goresten bazuten, esklabotzatik askatzea eta Canaara, agindutako lurrera, eramatea hitzeman zuen Jahvek. Bibliako Irteera liburuan kontatzen denez, Moisesek gidatu zituen israeldarrak Sinai basamortutik Kanaanera heldu arte berrogei urteko bidaian. Jahvek Moisesi **Hamar Aginduak** eman zizkion Sinai mendian. Horrela, herriak betebeharreko legedia araututa geratu zen, jainkozko legedian oinarrituta. Legedi hura jarraitzen zuten guztiek erredentzioa eta salbazioa aurkituko zuten. Honako hauek ziren Moisesek jaso zituen hamar aginduak:

HAMAR AGINDUAK

1. **Jainkoa maitatuko duzu gainontzeko guztiaren gainetik.**
2. **Ez duzu Jainkoaren izena alferrik erabiliko.**
3. **Jaiegunak santuetsiko dituzu.**
4. **Aita eta ama ohoratuko dituzu.**
5. **Ez duzu erailko.**
6. **Ez duzu ekintza lizunik burutuko.**
7. **Ez duzu lapurtuko.**
8. **Ez duzu testigantza faltsurik egingo, ezta gezurrik esango.**
9. **Ez duzu pentsamendu edo ekintza lizunik onartuko.**
10. **Ez dituzu besteren ondasunak desiratuko.**

Hamar aginduak hebreeraz. http://www.bnaiel.org

Con formato: Portugués (Brasil)

Moises da judaismoko, kristautasuneko eta islameko profeta garrantzitsuena, eta baita herri hebrear edo juduaren legegile nagusia ere. Horregatik, atal honetatik aurrera, eta Itun Zaharra amaitu arte, Judaismoaren historian kokatuta emango ditugu Bibliari buruzko azalpenak.

Baina, existitu al zen inoiz Moises? Orain arte ez da agertu hori baieztatzen duen elementu historikorik. Ez dago Bibliatik aparte beste inon, ez esklabotzaren, ez eta Irteeraren aipamenik ere. Ezta Egiptoko agirietan ere. Baina, nork ziurta dezake egiptoarrek agiri haiek ez zituztela desagerrarazi haserrealdi batean, akaso esklabo israeldarrek ihes egin zutenean?

Apokalipsia http://www.nosdigital.com.ar

- Ikusi duguna erabiliz, eta Internet baliatuz, beheko laukietan dituzuen terminoak definituko dituzue:

Jatorrizko bekatua:

Agindutako lurraldea:

Herri hautatua:

Profeta:

Patriarka:

Jokoa:

- Joko batekin amaituko dugu 3. jarduera hau, eta, bide batez, ikasi duguna errepasatuko dugu. Hasi aurretik, jokoaren pausoei eta arauei erreparatu behar diezue arreta handiz. Binaka jokatuko duzue.

Pausoak:

1. Bibliako hainbat pertsonaiaren izenak dauzkazue hurrengo orrialdean. Ezkerreko zutabekoak eskuineko zutabekoekin lotu behar dituzue, eta bi pertsonaia horien arteko loturari buruzko informazioa bilatu behar duzue liburuetan edota Interneten. Gauza bera egingo duzue beherago dauden gertakariekin eta pertsonaiekin; hots, lotu egingo dituzue horiek ere. Lotura-harreman horren zergatia ere zehaztu beharko duzue.

2. Ondoren, bikote bakoitzak hurrengo bi orrietako laukietan bildu eta idatziko du aurkitutako informazioa. Ordu erdi izango duzue lehen bi puntu horiek eskatzen dutena betetzeko.

3. Azkenik, informazio guztia aurrean duzuela, pantailan ikusiko duzuen irudia zein pertsonaiarekin edo ekintzarekin dagoen erlazionatuta esan beharko duzue. Hogei segundo izango dituzue horretarako. Jarraian dituzue zerrendatuta arauak zein diren.

Arauak:

1. Hogei segundo izango dituzue erantzun bakoitzerako, eta puntu bat lortuko duzue asmatuz gero.

2. Laguntzarik nahi baduzue, beste hamar segundo izango dituzue pentsatzeko, baina kasu horretan puntu erdi baino ez duzue lortuko.

3. Irudi guztiak pantailan pasatu direnean, puntu gehien lortu duen bikotea izango da irabazlea.

PowerPoint jokoa http://portal.educ.ar



A. Pertsonaiak:

1. Ramses II.a
2. Rakel
3. Aaron
4. Sara
5. Benjamin
6. Kain eta Abel
7. Rebeka
8. Lot
9. Hammurabi

B. Gertakariak:

10. Hamar izurriak Egipton
11. Zazpi behi lodi/zazpi behi argal
12. Zirkunzisioa lehenengoz egin
13. Asiriar Inperioa
14. Urrezko zekorra
15. Sasia sutan
16. Makila sugea bihurtu
17. Ortzadarra, Jainkoaren pozaren seinale
18. Beduino nomadak


Rebeka:
Hammurabi:
Aaron:
Ramses II.a:
Set:
Sara:
Kain eta Abel:
Lot:
Rakel:


Makila sugea bihurtu:
Zazpi behi lodi/zazpi behi argal:
Sasia sutan:
Beduino nomadak:
Zirkunzisioa lehenengoz egin:
Hamar izurriak Egipton:
Asiriar Inperioa:
Urrezko zekorra:
Ortzadarra Jainkoaren pozaren seinale:

4. Jarduera: Judaismoa, israeldar herriaren jatorriak

“Egun, hiru mila urte daramatzagu historia konpartitzen hiri horrekin. Apaiz juduen bedeinkazioak, muezinen ahotsak eta eliza kristauen kanpaiak nahasten dituen hiria da. Haren kale estuetan eta harrizko etxeetan entzun ziren profeten erretolikak; haren dorreek nazioen sorrera eta nazio horien erorialdia ikusi zuten. Izan ere, Jerusalem betirako egongo da hemen.”

Isaak Rabin, Bakearen Nobel saria 1994an

Jerusalem http://www.actualidadviajes.com

- Ohi dugun legez, gaiari buruz zer eta zenbat dakigun hausnartuko dugu jarduerari hasiera emateko.

  - Nobel sariarenaz aparte, ba al dakizue beste ezer Isaak Rabini buruz?
  - Zer dakizue Jerusalemi buruz?
  - Entzun duzue inoiz Erosten harresia aipatzen?
  - Badakizue nor izan ziren David eta Salomon?
  - Zer da sinagoga bat? Eta rabino bat?
  - Zeri deitzen diote juduek diaspora?
  - Entzun al duzue inoiz mesias hitza?

Israeldar herriarentzat historia bera, bere historia, da sakratuena, Jainkoarekin egindako ituna kontatzen duelako. Judaismoa eta israeldarren historia Abrahamekin hasi zen Mesopotamiako Ur hirian K.a. 2000 urtearen inguruan; hala dio juduen tradizioak. Lehenago ikusi dugunez, Jainkoak israeldarrak aukeratu zituen bere herri hautatua izateko, eta "lur aukeratura" eramateko. Moisesek gidatu zituen Kanaanera heldu arte, eta **Tanajek** dioenaren arabera, Jainkoarekin (Jahverekin) egindako Ituna (Hamar Aginduak kristauentzat) **kutxa urreztatu** batean gorde zuten Jerusalemeko tenpluan. Kutxa hura desagertu egin omen zen Nabukodonosorrek, Babiloniako erregeak, tenplua suntsitu zuenean. Hala ere, badaude ondo gordeta zegoela esaten dutenak ere, baina egia esan, Biblia kristauan zein Tanajen ez da sekula aipatu horrelako kutxarik, eta ezta inon agertu ere.



Itunaren kutxa http://almez.pntic.mec.es

Tanaj http://2.bp.blogspot.com

Zer da **Tanaj**? Hebreeraz irakurketa esan nahi du, eta Biblia hebrearra da, Judaismoaren liburu sakratua, Kristauek Itun Zaharra deitzen duten berbera. Tanajen ez daude Deuterakanonikoak izeneko zazpi liburuak, eta horixe da Biblia kristauarekin duen desberdintasuna.

Tanajeko lehen bost liburuak, **Tora** dute izena. Moisesek idatzi omen zituen. Horiexek dira garrantzitsuenak, Jahvek iradoki zituelako. Kristauek "Moisesen legea" esaten diote; juduek, ostera, "Legea" besterik ez.

Hebrear alfabetoa http://us.123rf.com

Hebrear Biblia

Toran diotenez, **Moisesek** Kanaanera eraman zuen herri israeldarra **Jahveren desioa** betetzeko. Israeldarrek hasieran Kanaaneko hiri asko menderatu arren, filistearrek aurre egin zieten, eta garaitu egin zituzten K.a. XI. mendean. Hurrengo mendeetan, jarraian kontatzen den bezala garatu zen judaismoaren historia:



Sanson eta **Saul** izan ziren filistearren kontra borrokatzen jarraitu zutenak, herriaren batasuna lortzeko asmoz. Saul izan zen israeldar herriaren lehen erregea.

Filistearrei buruzko lehenbiziko aipamenak K.a. XII. mendeko Egiptoko inskripzioetan agertzen dira. Mediterraneoko irletako herri konkistatzaileak omen ziren. Egiptotik Kanaaneko inguruetara abiatu ziren, eta Bibliak dio israeldarrak berrogei urte egon zirela filistearren mendean.

Saulen semea **David** izan zen, haren ondorengoa. Filistearrak eta inguruko herri etsai guztiak garaitu ostean, Jerusalemen tenplu izugarri handia eraikitzea erabaki zuen Davidek. Israelgo hamabi tribuak batu, eta Jerusalem bihurtu zuen erreinuaren hiriburua. Izan ere, David pertsonaia historikoa izan zen.



Daviden seme **Salomon** izan zen Israelgo hurrengo erregea. Ospe handiko gizona bihurtu zen oso jakintsua zelako, eta Jerusalemeko tenplua bukatu zuelako. Hura hil zenean K.a. 930. urtean, erreinua bitan banandu zen: Israelgo erreinua, iparraldean; Judakoa, hegoaldean.

Hirietako bizitzan israeldarrak Javherengandik urruntzen joan ziren, eta **profetak** azaldu ziren Jainkoarekiko fedea eta ituna herriari gogorarazteko. Profeta ezagunenak honako hauek izan ziren: **Elias**, **Amos, Oseas, Isaias, Jeremias eta Ezekiel**.

Sanson http://amistadcuauti.wordpress.com *Filistearrak* http://www.soloporgracia.com.mx *Salomon* http://www.blogodisea.com
David eta Goliat http://mercedicosas.files.wordpress.com *Profetak* http://elevangeliodelreino.files.wordpress.com

Salomon hil ondoren, ez zen Palestina inguruan bakerik izan. Hiru mende iraun zuten egiptoarren eta gainerako herri konkistatzaileen kontrako gatazkek. Babiloniako errege Nabukodonosorrek suntsitu zuen K.a. 587. urtean Jerusalem, tenplu eta guzti. Berriro ere, hebrearrek erbestera abiatu behar izan zuten, eta ezin izan zuten Palestinara itzuli Babilonia persiarren mende egon zen arte. Erbestean agertu eta sortu ziren lehenengoz **errabinoak** eta **sinagogak.**

K.a. 333. urtean, greziarrek hebrearren lurraldeak inbaditu zituzten, eta geroztik, persiarren eta greziarren hainbat ideia nahastu ziren judaismoarekin. Juduen artean kanpotarren okupazioaren kontrako taldeak sortu ziren: **fariseoak**, **saduzeo** edo apaizak, **zelotak**…



Nazareteko Jesus K.o. I. mendearen hasieran azaldu zen Jainkoaren seme salbatzaile gisa; ondorioz, herria banandu egin zen. Jesus judua zen, baina, hala ere, apaiz juduek eta errabinoek ez zuten sinetsi Jesus hura zenik itxaroten ari ziren Mesiasa. Une horretan banandu ziren bi erliiioak. Judaismoa eta kristautasuna.

Erromatarrek okupatu eta agindu zuten Palestinan K.a. 63. urtetik aurrera. K.a. 40. urtean**, Herodes Handia** bihurtu zuten juduen errege, eta aurrerantzean **Mesias** salbatzaile bat iristea izan zen juduen itxaropen bakarra.

Erromatarrekiko gorrotoak bizirik iraun zuen hurrengo urteetan ere juduen herrian. K.o. 66. urtean, juduak erromatarren kontra matxinatu ziren, baina oraingo honetan ere ez zuten ezer lortu. Ondorioz, Jerusalemeko tenplua suntsitu zuten beste behin, eta hainbat judu erbesteratu ziren. K.o. 135. urtean, Jerusalem hiri erromatarra bihurtu zuen Hadriano enperadoreak, eta betiko kanporatu zituen juduak handik. **Diaspora** deitzen zaio ekintza horri.



Jerusalemeko lehen tenplua http://farm2.static.flickr.com *Herodes* http://www.galeon.com *Antzinako Grezia* http://farm2.static.flickr.com *Nazareteko Jesus* http://chanfainatv.files.wordpress.com *Jerusalemeko 2. tenplua* http://farm2.static.flickr.com

Definizioak

Mesias: Isaias profetak zioenez, juduen buruzagia da. Gizaki-itxurakoa, eta espiritu boteretsu eta jakinduria oso handikoa. Salbazio espirituala zein fisikoa ekarriko diona herri juduari.

Diaspora: Juduak mundutik sakabanatuta, Israelgo lurraldetik kanpo, daudela adierazteko erabili den terminoa da. K.o. I. mendetik XX. mendera arte ez ziren Israelera, lur aukeratura, itzuli.

Sinagoga: Juduak Jainkoa ohoratu eta liburu sakratuak irakurtzeko biltzen diren tokia da. *Sinagoga* hitz greziarra da, eta batzartzeko etxea esan nahi du. Izan ere, judu-komunitatearen edozein beharrizan asetzeko tokiak dira.

Errabino: Judu-komunitate baten gidari espirituala da. Liburu sakratuen maisua, eta komunitate baten aholkulari morala ez ezik, zeremonia erlijiosoen, otoitzaldien, ezkontzen… buru ere bada.

- Sinagoga baten barnealdea duzue irudian. Gainean dituzuen adierazpenetatik bost dira sinagogekin lotura dutenak. Komenta itzazue taldeka, eta asmatu zein diren. Seinala itzazue aukeratutakoak gurutze batekin.

Sinagoga http://www.kalipedia.com

- Bibliatik zuzenean hartutako testu zati batzuk, eta testu horien egileak edo protagonistak dituzue orrialde honetan. Testuok dagozkien pertsonaiekin lotzea eskatzen dizuegu.

Pertsonaiak:

A. Samson eta Dalila
B. David eta Goliat
C. Salomon erregea
D. Job santua

Testuak:

"Nondik, bestela, itxaroten egoteko indarra? Zer helburu dut, pazientzia izateko?"
Jb 6,11
"Gizakiagatik kexatzen ote naiz? Zergatik, bada, ez dut galduko pazientzia?"
Jb 21,4

—Maite nauzula diozu eta ez zara nitaz fidatzen. […] eta oraindik ez didazu esan nondik duzun horrelako indarra. […] Ilea moztuko balidate, indarra galdu eta ahuldua geldituko nintzateke eta beste edozein bezalakoa izango—.
Hala, etorri ziren filistearren buruzagiak emakumeagana, dirua eskuan zekartela.
Epa 16,15; 16,17; 16,19

— Ezpataz, lantzaz eta azkonaz armatua zatozkit. Ba, Jaun ahalguztidunaren izenean natorkizu […] Jaunak ez duela behar ezpatarik, ez lantzarik gu salbatzeko […] Eskua zorroan sartuz harri bat atera, habailaz jaurti, eta bekokian jo zuen filistearra. […] Filistearrak, bere gizon adoretsua hil zela ikustean, ihesi joan ziren.
1Sm 17,45; 1Sm 17,47; 1Sm 17,49; 1Sm 17,51

Aldi hartan, bi emagaldu etorri ziren erregearen aurrera. Hau zioen haietarik batek:
— Otoi, ene jauna! Hara, emakume hau eta biok etxe berean bizi gara, eta hau etxean zela haurra izan nuen nik […] Handik hiru egunera, emakume honek ere haurra izan zuen. […] Gau batez hil egin zen emakume honen semea […] Gauerdian jaiki eta, ni lo nengoen bitartean, nire ondotik nire haurra hartu […]
Beste emakumeak, aldiz, hau zioen:
— Ez! Nire semea dun bizi dena […]!
Eta hau agindu zuen erregeak:
— Ekardazue ezpata!
— Erdibi ezazue bizirik den haurra, eta emaiezue erdibana.
Orduan, haur biziaren amari hunkitu zitzaion barrua bere semearengatik eta esan zion erregeari:
— Otoi, ene jauna! Emaiozu horri haur bizia […]
Orduan erregeak esan zuen:
— Ez hil haurra. Emaiozue lehenengoari; horixe da haurraren ama.
1Sm 3,16; 3,17; 3,18; 3,20; 3,22; 3,24; 3,25; 3,26; 3,27

Sintesia: Judaismoaren ideia garrantzitsuenak

- Hebrearrak monoteistak dira, Jainko ahalguztidun, zuzen eta errukitsu bakar batean sinesten dute. Judaismoa da erlijio monoteistetatik zaharrena.
- Lehen agindua Jainkoa maitatzea eta errespetatzea da, eta horretarako, Jainkoaren Legea bete, eta haren arau etiko eta moralak jarraitu behar dira.
- Legea Toran dago, eta Tanaj edo Biblia hebrearraren libururik garrantzitsuena da. Legea berdina da guztientzat; irakurtzeko eta ikasteko legea da, baina aldatu ezina.
- Toraren atal garrantzitsuena Dekalogoa da, Hamar Aginduak gehi eguneroko bizitzarako arauak hartzen ditu barnean: egutegia, jaiak, janaria, jantziak…
- Heriotzari buruz ari direla, uste dute beste bizitza bat dagoela hil ostean, baina sinesmen hori ez dute kristauek bezain landuta.
- Juduek ez dute euren Jainkoaren ez irudi ez imajinarik.
- Talmud izeneko testu multzoa legeari buruz errabinoek eta jakintsu hebrearrek egindako azalpen eta interpretazioek osatzen dute.

Errituak eta juduen sinboloak

- Atal hau zuok beteko duzue. Internet baliatuta bilatuko duzue jada ezaguna dugun zazpi besoko argimutiletatik aparte zer beste sinbolo dituzten juduek, eta zer erritu edota ohitura praktikatzen dituzten.
  Juduentzat historia, erlijioa, kultura, bizitzako ohiturak… bat bakarra dira, batuta daude. Hortaz, honako galdera hauei, edo antzekoei, erantzun behar diezue:
  - Igandea ote da juduen asteko jaieguna?
  - Noiz joaten dira sinagogara?
  - Zein jai eta zeremonia erlijioso ospatzen dituzte?
  - Hildakoak lurperatu ala erre egiten dira?
  - Eta, zer dakizue ezkontzei, jakiei, baraualdiei, zirkunzisioari… buruz?

❖ Autoebaluazioa eta lanaren balorazioa

Lehen ebaluazioan zer eta zenbat ikasi duzuen jakiteko unea heldu da. Horretarako, sekuentzia honetako hurrengo orrialdeetan ageri diren ariketak egingo dituzue, banaka. Ondoren, ohiko lan-taldeak bilduko zarete. Bakoitzak egindakoa denon artean zuzendu, eta beheko taula osatuko duzue. Amaitzeko, ebaluazioan zehar egindako lanaren balorazioa egingo duzue denon artean.

► Adi!!!

- Hasi aurretik, argi izan behar duzue ebaluazio-irizpideak zein diren.
- Autoebaluazioan zein beste kideen ebaluazioan, serioski eta zintzo jokatuko duzue.
- Puntuazioak 1etik 5era izango dira; 1 nota baxuena eta 5 altuena.

Bakarkako ebaluazioaren irizpideak	Norberak	Lan-taldeak
1. Atera eduki-azterketaren emaitzaren batez bestekoa.		
2. Arretaz irakurri dituzu erlijio-testuak.		
3. Ezagutzen dituzu ikasitako erlijioen jatorria eta ezaugarriak.		
4. Saiatu zara bakarka eta taldearekin lanean.		
5. Ondo identifikatu dituzu informazio iturriak.		
6. Gai izan zara testuak idatziz zein ahoz modu arrazoituan azaltzeko.		
7. Saiatu zara lanak txukun aurkezten.		
8. Entzun, balioetsi eta errespetatu dituzu lanean gainerakoen sineskerak eta iritziak.		
9. Adi eta errespetuz jokatu duzu eskoletan.		
10. Beste zerbait gehituko zenuke…?		

Taldeko ebaluazioa http://www.ikasquest.net/ http://www.fao.org/

Taldeko ebaluazioaren irizpideak	Norberak	Lan-taldeak
1. Arduraz eta errespetuz egin duzue lan taldean.		
2. Ikuspuntu guztiei erreparatu, eta elkarren arteko lana adostu egin duzue beti.		
3. Saiatu zarete material egokia aurkitzen.		
4. Taldearen iritziak modu argian eta ziurrean defendatu dituzue.		
5. Lanak garaiz eta txukun entregatu dituzue.		
6. Beste zerbait gehituko zenukete…?		

Edukien proba: Hiru atal izango dituzue edukien proba egiteko:

1. Eskema osatu
2. Hutsuneak bete
3. Gezurra ala egia den erabaki

1. Eskema osatu:



2. Hutsuneak bete:

- Judaismoa erlijio …….. da.
- Juduak …….. batek herriaren liberazioa ekartzea itxaroten ari dira.
- Biblia hebreeraz idatzita dago Hasiera eta Irteera liburuetan; geroagoko liburuetan ostera, …… idatzi zuten.
- Animismoa eta Ekialdeko erlijio gehienak erlijio …….. dira.
- Kristauen egutegia ilargitarra eta eguzkitarra da; ……aldiz, ilargitarra soilik.
- ……. hiri santua da juduentzat, kristauentzat eta musulmanentzat.
- Ezkonberriek eraztunak ematen dizkiote elkarri Kristautasunean eta ……....
- Sinagogako parterik garrantzitsuena ……-…….. da.
- Eguzki-lorea antzinako ……. sinesmenetariko bat da.
- Antzinako greziarrek eta erromatarrek erlijio …… zuten.

- Tenplu barnean aldare bat duten erlijioak kristautasuna, islama eta …… dira.
- Itun Zaharra eta Itun Berria atalak dituena Biblia ……da.
- …… erlijioan "OM" hitza idazten zaio mihian jaioberriari.
- …… zuriz janzten dituzte hil berriak, eta zuzenean lurrean edo haitzean lurperatzen dituzte.
- Imana da otoitzaren gidaria ……..... ; judaismoan aldiz, errabinoa.
- Kristauentzat igandea da egun sakratua, musulmanentzat ostirala, eta juduentzat…….. .

3. Gezurra/Egia:

- Hebrearren Biblia eta kristauen Biblia berdinak dira Itun Berrira arte. ☐
- Abraham izan zen Jainkoak bere itxurara eta antzera egindako lehen gizona. ☐
- Musulmanek Jesus jaio, hil eta berpiztu egin zela uste dute. ☐
- *Kipa* da juduek buruan jartzen duten txapeltxoa. ☐
- Gurutzea eta arraina juduen sinboloak dira. ☐
- Abrahamen seme Ismaelen ondorengoak kontsideratzen dira arabiarrak. ☐
- Ekialdeko erlijioek arimak hil ondoren berraragitu egiten direla sinesten dute. ☐
- Erlijio monoteistak kristautasunetik sortu ziren. ☐
- Budistentzat gure ekintzen ondorioa besterik ez da benetako liberazioa, eta inola ere ez Jainkoengandik datorkiguna. ☐
- Gazte juduek Tora legea jarraitzen hasi behar dute 13 urte betetzen dituztenean. ☐
- Bibliako Uholdearen protagonista Set izan zen. ☐
- Meskita guztietan aurkitu daitezke *menorah*k. ☐
- Hil ondorengo errausketa praktika ohikoa da juduentzat. ☐
- Juduek eta musulmanek ezin dute txerrikirik jan. ☐
- Hiru erlijio monoteista nagusiak politeistekin nahastuta azaltzen dira jatorrian. ☐
- Eresien Horma da antzinako Jerusalemeko tenplutik geratzen den zati bakarra. ☐
- Sinagogak Jainkoaren irudiz beteta daude. ☐
- *Mana* deitzen zaio Jahvek hebrearrei Sinaiko basamortuan eman zien elikagaiari. ☐
- Talmud liburua, juduen lege, ohitura eta tradizioen interpretazio desberdin bilduma da. ☐
- Kristauek mutiko jaioberriei zirkunzisioa egiten diete zazpigarren egunean. ☐
- Israelgo Jordan ibaiko urak sakratuak dira juduentzat, fededunak bertan bataiatzen direlako. ☐
- Errabinoek minaretetik deitzen dituzte fededunak otoitz egitera. ☐
- Moisesek gelditu eta banandu egin zituen Itsaso Gorriko urak, hebrearrek ihes egin zezaten. ☐
- Daviden izarrak hamabi trazu ditu, Israelgo hamabi tribuen izenean. ☐
- Kaaba Mekan dagoen Abrahamen garaiko tenplu bat da. ☐



- 1. ebaluazioan zehar egindako lanaren balorazioa adostuko duzue orain guztion artean:

Lehen ebaluazioko lanaren balorazioa

1. Edukiak:
   - Aspergarriak
   - Interesgarriak
   - Baliagarriak
   - Nahasiak
   - Ezagunak

   Zuen ustez, ba al dago sakonago ala azalagotik landu beharko litzatekeen edukirik?

2. Metodologia eta materiala:
   - Ariketa gustukoenak
   - Ariketa aspergarrienak
   - Sekuentzia edo unitatea bera
   - Mapa tematikoak
   - Eztabaidak
   - PowerPointa
   - Filmak
   - Testu zatiak
   - Informazioa biltzea

3. Amaitzeko eta laburbiltzeko, balora ezazue 1etik 5era amaitu berri duzuen unitatea:
   - Unitatearen edukiak
   - Erabilitako metodologia
   - Erabilitako materiala
   - Eskolen giroa eta abiadura.

Zer proposatuko zenukete emandako unitatea hobetzeko?

Iradokizunak:

Hamar Aginduak filma

Hamar Aginduak 1956an egindako filma estatubatuarra da. Oskar bat irabazi zuen, eta film onenari egindako nominazio gehiago ere izan zituen.

Biblian Moisesi dagokion atalean oinarrituta dago. Zinema munduan klasiko bat da jadanik hebrearrek ihes egin zezaten Moises Itsaso Gorriko urak zabaltzen ageri den irudia.

Hamar Aginduak filma http://www.decine21.com

- Filma arretaz ikusiko duzue, eta, amaitu ondoren, taldeka erabakiko duzue zein den gehien gustatu zaizuen atala. Zergatia azalduko duzue idatziz azpiko laukian; eta, azkenik, saiatuko zarete filmari buruzko kritika pertsonal txiki bat egiten.

5. Jarduera: Kristautasunaren jatorriak. Nazareteko Jesus.

"Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege".

"Gaizkileari ez gaizki erantzun; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere".

"Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi; horrelakoek baitute Jainkoa errege".

"Lehena izan nahi duena, izan bedi denetan azkena, eta denen zerbitzaria".

"Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala".

"Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, baizik Jainkoak esaten duenetik bizi da".

"Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren".

- Ezagunak egiten al zaizkizue goiko aipuak? Ba al dakizue norenak diren? Zer uste duzue transmititu nahi duela egileak aipu horien bitartez? Taldeka bildu, eta hausnartu esaldi horien esanahiari buruz. Erabili adjektiboak eta aditzak, eta adierazi beheko laukian goiko aipuek iradokitzen dizuetena.



Dibinitatea http://centauro996.files.wordpress.com

- Kristautasunari buruz hainbat kontu entzungo zenituzten seguru asko, eta zer edo zer jakingo duzue horretaz. Galdera batzuk erantzungo dituzue denon artean ahoz; horrela jakingo dugu gai horretaz zenbaterainoko ezagutza duzuen:
  - Jesus Betleemen jaio zen, eta Nazareten bizi. Badakizue non hil zen?
  - Ba al dakizue zenbat eta nor izan ziren Jesusen jarraitzaileak edo apostoluak?
  - Zein zen Jesusen aita? Zein haren lanbidea?
  - Non ezkutatzen ziren kristauak erromatarrengandik babesteko?
  - Jesusek parabolen bidez azaltzen zuen bere doktrina. Zer dira parabolak?
  - Nor izan ziren ebanjelariak? Eta Barrabas?
  - Ba al dakizue zer diren sakramentuak? Aipa dezakezue bateren bat?
  - Zein mendetan bihurtu zen ofiziala erlijio kristaua?
  - Eliza da kristauen tenplua. Zertarako erabiltzen dute elizako kanpaia kristauek?
  - Entzun al duzue Jesusek egindako miraririk? Zein da zuen iritzia?
  - Zein dira kristauentzat data oso garrantzitsuak, eta zergatik?
  - Entzun al duzue inoiz *epifania* hitza? Zer esan nahi du?

- Hainbat eta hainbat artelanetan ageri diren gaiek erlijioarekin dute zerikusia. Honako hau ere halakoa da. Begira iezaiozue arreta handiz. Zer azaltzen da koadroan?



Azken afaria http://mercurio.srv.dico.unimi.it

Nazareteko Jesus: Jaiotza eta haurtzaroa

Duela bi mila urte sortu zen kristautasuna Palestinan. Aspalditik, erromatarren mende zeuden Judea, Galilea eta Jerusalem juduen hiri santua. K.a. 63. urtean, Ponpeiok Jerusalemeko tenpluaren parterik sakratuena suntsitu zuen unetik, herri judua erromatarren okupazioaren aurka altxatu zen.

Herodes haur hiltzaile http://www.uni-koeln.de

Erromako senatuak **Herodes** izendatu zuen juduen errege, eta hark gogor menderatu zituen herrialdean gertatu ziren matxinadak. Jesus Herodes handiaren garaian jaio zen. Kristauen Biblian kontatzen dute hiru errege magoek eman ziotela Herodesi juduen Mesiasen jaiotzaren berri. Orduan, Herodesek inguruetako jaioberri guztiak hiltzea agindu omen zuen.

Dena den, ez da inoiz ez inon agertu halako ekintzarik ziurtatzen duen elementu historikorik. Hala ere, argi dago ez Herodesek ezta erromatarrek ere ez zutela gustukoa izango juduen Mesiasen berririk. Garai hartako Erroman eta Erromatar Inperioko herrialdeetan jainko asko gurtzen zituzten, greziar jatorrizko jainkoak gehientsuenak. Politeistak ziren, eta gainera, enperadorea bera ere jainkotzat hartzen zuten. Hortaz, erromatar agintariek mesfidantzaz begiratzen zuten juduek itxaroten zuten Mesias salbatzaile hura.

Palestinako mapa http://www.vacationstogo.com

Jesus **Betleem** jaio zen, Jerusalemetik oso hurbil zegoen herri txiki batean. Erdi Aroan egutegi kristaua berrikustean akatsak aurkitu zituzten; horrexegatik, egun, zero urtean esan beharrean, Jesus K.a. 4. urtean jaio zela diogu, hori erabaki zenerako jadanik egutegia mugiezina baitzen.

Nazareteko Josef arotza bere emazte Mariarekin batera abiatu zen Betleemera Erromako Oktavio Zesar Augusto enperadorearen erroldan izena emateko agindua betetzeko. Betleemen zeudela izan zuten semea, eta Jesus izena eman zioten. Moisesen legeari jarraituta, laugarren egunean zirkunzidatu zuten umea, eta Mariak umea tenplura eraman zuen aurkezpena egiteko. Han, Simeon agureak esan zion ume hura zela juduek itxaroten zuten Mesias.

Hurrengo hogeita hamar urteetan Jesus Nazareten bizi izan zen bere gurasoekin. Hamabi urterekin Jesus juduen Pazkoa ospatzeko Jerusalemeko tenplura joan zenean, umearen adimenak harrituta utzi zituen hango jakintsuak. Une horretan azaldu zen lehenengoz Jesusen jainko misioa.

Kristautasuna judaismoaren eta Greziako kulturaren arteko nahastea da, erromatarren kultura greziarren herentzia baitzen azken finean. Kristauentzat, Jesu Kristo zen Itun Zaharrean aipatzen zen **Mesias** salbatzaile hura, Jainkoaren seme itxarondakoa. Baina, judu gehienek ez zuten sinetsi Jesus zenik Jainkoak bidalitako liberatzaile hura. Hortik dator juduek Bibliako Itun Berri*a* ez onartzea, Jesu Kristoren jaiotzatik aurrerantzean gertatutakoa kontatzen baitu.

Juduak. http://apologista.files.wordpress.com

Heltzear zen Mesiasi buruzko hainbat profezia izan ziren hebrearren artean, eta profezia haietatik hainbat betetzen ziren Jesusen pertsonan. Honako hauek dira horietako batzuk: Judaren tribukoa izango zela; Betleemen jaioko zela; juduek uko egingo ziotela… Baina, hala ere, errabino eta jakintsu juduek ez zuten Kristorengan sinetsi. Aurrerantzean, "kristauak" deitu zitzaien Nazareteko Jesus Jainkoaren seme maitatua eta desiratua zela uste izan zutenei.

Biblia**ko** Itun Berri***a***

Kristauentzat bi Itunek, Zaharrak eta Berriak, osatzen dute Biblia. Itun Berriak Jesusen bizitza, irakaspenak edo doktrina, eta mirariak biltzen ditu, grezieraz idatzita. Hogeita zazpi liburuk osatzen dute Itun Berria, eta honako atal hauetan banatzen da: lau ebanjelioak; Pauloren eta gainerako apostolu batzuen gutunak (Simon-Petri, Jakue, Joan eta Juda); eta Apokalipsia.

Itun Berria. http://www.reclaimingthemind.org

- Internet baliatuta, bikoteka, Itun Berriko atal bakoitzari buruzko informazioa bilatuko duzue. Informazio hori laburtu eta azpiko laukietan idatziko duzue, amaitu ondoren guztiok batera komentatzeko.

Lau Ebanjelioak

Egileak:

Data:

Gaia(k):

Pauloren eta apostoluen gutunak

Tarsoko Paulo:

Gizon eztabaidagarria: judua ala kristaua?/ misoginoa eta homofoboa?

Apokalipsia

Egilea:

Data:

Gaia:

Dagoeneko konturatuko zineten Jesusen bizitzari buruzko informazio gehiena ebanjelioetan aurki daitekeela. Hala ere, hainbat zalantza daude kontatzen diren gertaeren egiatasunari buruz. Kontuan izan behar dira honako datu hauek:

- Jesusen garaiko gainerako testuetan ez da behin ere Jesus aipatzen.
  Itun Berrian Jesusi buruz gehien idatzi zutenek ez zuten Jesus ezagutzen. Adibidez, Mateok Itun Berriko % 14 baino ez zuen idatzi.

- Ebanjelioetan Jesusen bizitzaz kontatzen digutena kontraesanez beteta dago. Ebanjelistak ez dira ados jartzen Jesusen jaiotegunari buruz, edota birjina batengandik jaio zela esateari buruz, adibidez.

Lau ebanjelistak http://www.unav.es/sagradaescritura/

- Bila ezazue Interneten Jesusen jatorriari eta jaiotzari buruz ebanjelistek izan zituzten desadostasunei buruzko informazioa. Taldean hausnartu eta komentatu ondoren, idatz ezazue zuon iritzia modu arrazoituan horretarako duzuen laukian.

Definizioak

Epifania: Eliza katolikoak urtarrilaren 6an ospatzen duen jaiari Epifania deitzen zaio. Hiru Errege Magoak Jesus adoratzera joan ziren unea ospatu nahi da jai horrekin.

Arkanjelua: Aingeruak Jainkoaren izenean gizakia laguntzen duten izaki espiritualak dira. Arkanjeluak goi-mailako aingeruak dira. **Gabriel** izeneko arkanjeluak eman zion Jesusen jaiotzaren berria Mariari.

Espiritu Santua: Jainkozko indar edo ezaugarri ona, ederra, jakintsua eta maitekorra da kristauentzat. Espiritu Santua Jainkoak aginduta sartu omen zen Mariaren barruan, eta haurdun utzi zuen.

Profezia: Jainkoak profetei egindako jakinarazteak, hots, etorkizunean gertatuko zena, profeziak ziren.

Jesus hitza *Iesous* hitz grekoaren forma latinoa da, eta *Jeshua* edo *Joshua* hebrear hitzetik dator; —*Yavhe* salbazioa da— esan nahi du. ***Christos*** hitz grekoa, *mashiaj* (mesias) hitz hebrearraren parekoa da, eta Jainkoaren gantzutua edo olioz igurtzia esan nahi du. Lehen kristauek Jesus izenari Kristo gehitu zioten Israelgo herria askatuko zuena adierazten zuelako.

- Jesusen jaiotza da hainbat artelanen gaia. Saia zaitezte honako pintura hauek ulertzen eta azaltzen.

Errege Magoen adorazioa. Boticcelli http://www.artelista.com/

Deikundea. Fra Angelico http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons

Iluntasuna eta argia http://www.webislam.com

Jesu Kristoren bizitza publikoa

Jesusen bataioa http://nacerdenuevo.org

Ebanjelioen datuen arabera, Jesusek hogeita hamar urte inguru zituenean berrogei egun eman zituen basamortuan meditatzen, barau egiten, eta bere bekatuez damutzen (penitentzia egiten), deabruak hiru aldiz tentatu baitzuen. Hurrengo hiru urteetan Palestinan zehar predikatzeari ekin zion buru-belarri. Joan Bataiatzaileak Jordan ibaian bataiatu zuen unean hasi zuen Jesusek bizitza publiko hura. Une hartan, konturatu zen Joan Jesus zela itxaroten ari ziren Mesias hura, eta honela esan zion bataiatzeko unean: *“Hau Jainkoaren Bildotsa da, munduko bekatuak kentzen dituena”(*Joan 1,29*)*. Espiritu Santua jaitsi zen zerutik uso itxuran, Jainkoaren ahotsak Jesus bere seme maitatua zela aitortzen zuen une berean.

Jesusek hamabi jarraitzaile aukeratu zituen bere lagun leialenen artean. Jesusen **apostoluak** deitzen zitzaien. Honako hauek izan ziren:

- Simon Petri (Pedro) edo Keipha (azken izen honetatik dator Kepa izena)
- Andres
- Jakue
- Joan
- Filipe
- Bartolome
- Mateo
- Tomas
- Jakue Alfeorena
- Simon Zelote
- Juda Tadeo
- Juda Iskariote



Hamabi apostoluak http://bendicionescristianaspr.com

Deabrua: Itun Berrian deabrua (luzifer, satana, demonioa…) Jahveren aingeru bat da. Hura baino boteretsuagoa izan nahi zuelako Jahvek zerutik kanporatu zuen aingerua.

Apostoluekin batera Jesus bere mezua, Berri Ona, zabaltzen ibili zen Galilea eta Judeako lurraldeetako sinagogetan eta toki publikoetan. Jende asko biltzen omen zen hari entzuteko. Ipuinen bitartez (parabolak) azaltzen zuen Jesusek bere mezua, eta Jainkoaren Erreinuari buruz adierazi nahi zuena.

Jesusen parabolak eta sermoiak

- Hona hemen Jesusen hiru parabola. Arretaz irakurri ondoren, hausnartu parabola bakoitzaren esanahiari buruz, eta idatzi zer adierazi eta irakatsi nahi zien Jesusek bere entzuleei parabola horien bidez.
  Ados zaudete haren irakasgaiekin? Bateratu eta arrazoitu erantzunak taldeka.

Mostaza-haziaren parabola: Jesusek beste parabola hau kontatu zien: "Jainkoaren erregetza gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten; txoriek etorri eta adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza".

Mt 13, 31-32

Ardi galduaren parabola: Zergalari eta bekatari guztiak Jesusengana bildu ohi ziren hari entzutera, eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean ari ziren esanez: "Horrek harrera ona egiten die bekatariei, baita beraiekin jan ere".
Jesusek parabola hau esan zien: "Zuetako nor, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez da, beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galduaren bila joaten aurkitu arte? Eta aurkitzen duenean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxeratzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: "Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!" Egia esan, Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz berritzen den bekatari batengatik, bihotz berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Mt 18, 12-14

Samariar onaren parabola: Orduan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion:
–Maisu, zer egin behar dut ondaretzat betiko bizia jasotzeko?
Jesusek esan zion:
–Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?
Hark erantzun:
–*Maita ezazu jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagun hurkoa zeure burua bezala.*[…] Eta nor da nire lagun hurkoa?
Jesusek erantzun zion:
–Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere […] Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olioz eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman […]. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?
Lege-maisuak erantzun zion:
–Hartaz errukitu zenak.
Jesusek esan zion, orduan:
–Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.

Mt 22,34-40;Mk 12,28-31

Predikazioak http://public.bay.livefilestore.com

Paraboletatik aparte bazituen Jesusek gizarteko **talde baztertuenei** bideratutako zenbait **sermoi** eta mezu. Hain zuzen ere, umeei eta emakumeei zuzentzen zitzaien sarritan. Honako hau Emakume adulteriogilea izenekoa da:

Jesus Oliamendira joan zen. Biharamunean, egunsentian, tenplura itzuli zen, eta herri guztia etorri zitzaion. Jesus, eseririk, irakasten hasi zen.
Orduan, lege-maisu eta fariseuek emakume bat, adulterioan harrapatua, ekarri zioten. Erdi-erdian ipiniz, esan zioten Jesusi:
−Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek legean honelakoak harrika hiltzeko agindu zigun; zuk zer diozu?
Galdera azpikeriaz egin zioten, hura salatzeko aitzakiaren baten bila baitzebiltzan. Jesus, alabaina, makurturik, atzamarrez lurrean idazten hasi zen. Haiek, ordea, galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu zen jesus eta esan zien:
−**Zuetan bekaturik gabe dagoenak jaurti diezaiola lehen harria**.
Eta berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. Haiek, ordea, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik geratu zen , emakumea aurrean zuela. Jesusek zutitu eta esan zion:
−Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork ere gaitzetsi?
Hark erantzun:
−Inork ere ez, Jauna.
Orduan, Jesusek:
−Nik ere ez zaitut gaitzesten; zoaz, eta ez egin berriro bekaturik.

Joan 8, 1-11

- Hausnartu sermoiak dioenari buruz, eta erantzun honako galdera hauei. Azpian duzuen taula erabil dezakezue horretarako.

    - Zer esan nahi izan zien Jesusek lege-maisu eta jakintsu juduei aipatu parabolan letrakera lodiz dagoen esaldiaren bidez?
    - Uste duzue gaur eguneko bizitzan Jesusen hitz horiek aplika daitezkeela? Zein egoeratan, adibidez?
    - Zertan dira desberdin Jesusen predikazioak eta judaismorenak? Zer zen berria eta kuriosoa parabolako garai hartan? Azken bi galdera horiei erantzun aurretik, irakur ezazue hurrengo azalpena:

Talioaren Legea da munduko legerik zaharrena; hala ere, agian, “begia begi truk” esamoldea entzunda egingo zaizue ezagunagoa. Hammurabiren garaikoa da eta bostehun urte beranduago Moisesek hebrearrei hiru bider aplikatu zien lege gogor hori Sinaiko basamortuan.

Harrikatzea http://www.almamagazine.com

Jesusen Zoriontasunak

Mendiko sermoia izan zen Jesu Kristok emandako garrantzitsuenetariko bat. Sermoi horretan aldarrikatu zituen **Zoriontasunak** eta, horrela, zeruko erreinua zabaltzen zuen txiro eta zoritxarrekoentzat. Horixe zen bere mezua eta bere doktrinaren berrikuntza: **Jainkoarekiko eta hurkoarekiko maitasuna**. Uko egiten zion juduen herri hautatuaren ideia hari, Jainkoa gizaki guztien aita baitzen, eta ondorioz, gizaki guztiek izan behar zuten anaiak.

Horregatik, Jesusek bere mezua Lurraren luze-zabalean hedatzeko agindu zien bere jarraitzaile eta apostoluei, eta maitasunez, anaitasunez eta barkamenez jokatzeko.

- "Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege".
- "Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko".
- "Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitz emandako lurraz".
- "Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko".
- "Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango".
- "Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa".
- "Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko".

Mendiko sermoia http://www.horaciobojorge.org

- "Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege".
- "Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztenean, erasoka eta gezurrez gaitz esaka erabiliko zaituztenean. Poz zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten".

Lk 6, 20-26; Mt 5, 1-12

Jesusek zabaldu zuen mezua apurtzailea eta iraultzailea zen garai eta egoera hartako herriarentzat. Herri txiroa, erromatarren mendekoa, gaixo eta gose sarri, eta irtenbide barik sentitzen zen herri horrentzat aldarrikatzen zuen Jesusek Jainkoaren maitasuna, Zeruko erreinuan betiko iraungo zuen zoriontasuna.

Jesusen mirariak

Ebanjelioen arabera, Jesusek hainbat mirari ere egin zituen, jendeak benetako Jainkoa ezagut zezan, eta, bide batez, jendea laguntzeko: gaixoak sendatu zituen; deabrua atera zuen hainbat jenderen barnetik, eta hildakoak berpiztu zituen. Mirarien bitartez Jesu Kristok argi utzi nahi zuen Jainkoa naturaren mugak baino urrunago joateko gai zela. Hogeita zazpi mirari egin zituen guztira.

- Bila ezazue Jesusen mirariei buruzko informazioa, eta prestatu bikoteka mirari horietako baten azalpena gelakideei kontatzeko.

Lazaroren berpizkundearen miraria. Vatikanoko pinakoteka. http://static.panoramio.com

Jesukristoren heriotza

Jesu Kristoren mezua erraz ailegatzen zen jende umil eta arruntarengana, itxaroten ari ziren Mesias hura ikusten baitzuten Jesusengan. Baina, hain zuzen ere, horrexek eragin zuen lege-maisu eta erlijio-agintari juduen ukatzea. Bestalde, erromatar agintariek ere ez zuten begi onez ikusten herria mugitzeko eta aztoratzeko hainbeste ahalmen zuen gizon hura.

Jerusalemera predikatzera joan zenean (gaur egungo Erramu-igandean), Sanedrineko guardiek eta erromatarrek atxilotu egin zuten, eta lapurrak eta gaizkileak tratatzen ziren modu berberean exekutatu zuten: gurutziltzatuta. Horregatik, gurutzea da kristauentzat ikur adierazgarriena.

Kristoren heriotza-prozesuan barneratu orduko, beharrezkoa duzue honako azalpen hauek ezagutzea gertatutakoa ondo ulertu ahal izateko:



Kristoren heriotza
http://blogsantiagosoul.files.com

Via Crucis (gurutze-bidea latinez): Horrela deitzen zaie atxilotu zuten unetik, gurutzean hil eta lurperatu zuten arte Jesu Kristok bizi izan zituen uneei. Ebanjelioen arabera, hamalau epealdi edo etapatan banatzen da Kristoren heriotzarako bidea, edo Kristoren Pasioa ere deitu izan dena. Etapa bakoitzean, gurutzerako bidean, Jesu Kristok izandako sufrimenduaren xehetasunak kontatzen dira.

Sanedrin: Jesu Kristoren garaian judu-herrietan lege-maisuek eta jakintsuek osaturiko kontseilua zen. Erlijio-gaiak zein zibilak kudeatzen zituen. Hala ere, Sanedrinak ezin zuen erabakirik praktikan jarri aldez aurretik erromatar gobernariek onartu gabe. Horregatik, Kristo gurutziltzatzeko ere Pontzio Pilatoren baimena behar izan zuen.

Judas Iskariote: Joanen ebanjelioan kontatzen denaren arabera, Jesus saldu zuen apostolua da. Sanedrinekoei diru truke kontatu zien maisua non aurkitu eta atxilotu zezaketen. Bertsio desberdinak badaude ere, gehienen arabera, Judas berehala damutu eta bere burua zuhaitz batean urkatu omen zuen.

Maria Magdalakoa: Jesu Kristok barkatu, eta bere jarraitzaile bihurtu zuen emagaldua edo prostituta omen zen. Kristo gurutziltzatua izan aurretik, bitartean, eta ostean haren alboan egon zen.

- Internet erabilita, zeuok osatuko duzue Kristoren heriotzaren narrazioa. Horretarako, irakur ezazue arretaz ematen dizuegun informazioaren hasiera, eta idatzi marretan falta dena:



  - **Betanian** emakume batek ohartarazi zuen Jesus _____
    _____
    _____

  - Errabino eta agintari juduak Jesus atxilotzeko prestatzen ari ziren bitartean, apostoluak antzinatik ospatzen zen **Pazko-afaria** prestatzen ari ziren, Jesusekin batera ospatzeko _____
    _____
    _____
    _____
    _____

  - Jesus Getsemani landan, **Olia mendian** _____
    _____
    _____
    _____

  - Maisua Sanedrinen aurrean zegoela, **Simon-Petri apostoluak** _____
    _____
    _____

  - **Pontzio Pilatoren** gobernari erromatarrak epaitu zuen Jesus _____
    _____
    _____

  - Gurutzetarako bidea (**Kalbario mendira** edo Golgotara bidea) gogorra izan zen Jesusentzat _____
    _____
    _____
    _____
    _____
    _____
    _____

  - Beste bi lapurrekin batera **gurutziltzatu** zuten Jesus_____
    _____
    _____

Pietatea, Michelangelo Buonarroti. http://didado.com.mx

Jesu Kristoren Berpizkundea



Berpizkundea http://lumbrera.files.wordpress.com

Kristauek diote Jesus gizaki guztiak salbatzeko hil zela gurutzean, Jainkoaren semea zelako. Izan ere, haren aparteko jaiotza zalantzarik gabe gera zedin pizkundearen ezaugarria erantsi zioten. Izan ere, ama birjina batengandik jaioa izan ez balitz, eta berpiztu izan ez balitz, ez ginateke jainko bati buruz arituko, gizon arrunt bati buruz baizik.

Jesus hil eta handik hiru egunera, haren amak eta Maria Magdalakoak hutsik aurkitu zuten hilobia. Harria alboratua zegoela ohartu ziren, oso astuna zen arren. Horrela diote Itun Berrian:

> Asteko lehen egunaren goizean pizturik, Jesus lehenik Maria Magdalakoari agertu zitzaion […] Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, nahigabez eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Gero, beraietako biri agertu zitzaien […]
>
> *Mt 28,9-10; Lk 24, 13-35; Jn 20, 11-18*

> Azkenik, Hamaikei agertu zitzaien, mahaian eserita zeudela, eta aurpegira bota zizkien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zietelako. Eta esan zien: "Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berriona izaki guztiei. Sinesten eta bataiatzen den oro salbatua izango da; sinesten ez duena, berriz, kondenatua".[…]
> Horrela hitz egin ondoren, Jesus Jauna zerura jasoa izan zen eta Jainkoaren eskuinean eseri zen.
> Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren berriona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez mezua baietsiz.
>
> *Mt 28,16-20; Lk 24,39-49; Jn 20,19-23; Eg 1, 6-8*

Halere, Itun Berriko narrazioak ez datoz bat hainbat puntutan; esate-baterako, Jesus non berragertu zen: ebanjelio batzuk diote Galilean izan zela, eta beste batzuk Emausen… Gainera, lau ebanjelariek azpimarratu zuten apostoluek ez zutela berpizkundean sinesten. Nola izan daiteke hori horrela, apostoluek Jesus Jainkoaren semea zela uste bazuten?

Mendekoste —Espiritu Santuaren ospakizuna—, kristauen jai garrantzitsuena da Eguberri eta Pazkoaren ostean. Jesu Kristo zerura igo eta Espiritu Santua jaitsi zitzaien apostoluei uso itxuraz, eta jakinduriaz bete zituen jainkozko mezua lurrean zabaltzeko.

Mendekoste, Grekoa. http://es.wikipedia.org

- Eguneroko bizitzan aipatzen ditugun zenbait adierazpen kristautasunean agertzen diren hainbat ekintza edota izeni lotuta daude. Zerbait edo norbait oso gogorra edo desatsegina dela esateko, *kalbario* bat dela esaten dugunean Jesu Kristok gurutzera-bidean Kalbario mendirantz zihoala pasatu zituen une latzei erreferentzia egiten diegu.
  Ea zuok antzeko paralelismo gehiago aurkitzeko gai zareten. Taldeka, idatzi azpiko laukitxoan aurkitzen dituzuenak:

Ezagutu ditugun Jesu Kristoren bizitzako gertaerak —nahiko sinesgaitzak askotan—, ebanjelioetatik aparteko idazki zaharragoetan ere agertzen dira. Esaterako, Egiptoko Hildakoen liburuan diote Osiris hil eta hiru egunera jainko bihurtuta berpiztu zela. Antzeko gertaerak, eta kristautasunari lotuta dauden adierazpenak (salbazioa, berpizkundea, mirariak…) kontatzen dira, baita ere, greziar eta erromatar mitologian.

Hirutasun Santua www.farm4.static.flickr.com

Hirutasun Guztiz Santuak, esate-baterako, Jainkoa hiru jainkozko pertsona desberdin (Aita, Semea eta Espiritu Santua) izaki bakar batean dela esan nahi du: Hori da kristauentzat Jainko izatearen ideiarik garrantzitsuena. K.o. I. mendean azaldu zuten kristauek lehenbiziko aldiz ideia hori, hau da, Jainko bat hiru pertsonetan batera izatea, baina antzinako persiarren, egiptoarren, feniziarren… erlijio pagano edo politeistetan maiz agertzen zen. Greziar Hirutasuna, esaterako, Zeus, Athena eta Apolo jainkoek osatzen zuten.

Sinestea ala ez sinestea, edo zenbaterainokoa da sinestea fede-kontua?

Zer uste duzue zuek?

- Orain arte ikasi duzuena kontuan izanda, taldeka, komentatu eta hausnar ezazue erlijioetan sinestea zenbateraino izan daitekeen fede kontua. Erreparatu bereziki kristautasunari. Ondoren, iritzi-trukaketa bat egingo dugu guztion artean.

6. Jarduera: Kristautasuna Jesu Kristoren ostean

- Kristautasunaren zabaltze-prozesuari buruz zer eta zenbat dakizuen jakiteko, galdera batzuk erantzungo dituzue denon artean ahoz:

  - Gogoratzen al duzue zerbait Tarsoko Paulori buruz?
  - Nor ziren jentilak ?
  - Ba al dakizue katakonbak zer ziren, eta zertarako erabiltzen zituzten?
  - Nor izan ziren martiriak? Aipa dezakezue martiri kristau baten izena?
  - Ba al dakizue zer ziren kontzilioak?
  - Nor da Kristoren ordezkaria lurrean?
  - Jakingo zenukete heresia hitza definitzen?
  - Entzun al duzue inoiz Done Agustini buruzko ezer?

Kristautasunaren hedapena eta eboluzioa

Ez zen batere erreza izan lehen kristau haientzat euren doktrina zabaltzea eta hedatzea. Hasiera batean erromatar agintariek kasu handirik egin ez zieten arren, laster beldurtu ziren kristauen ideia haiek Inperioaren egonkortasuna ukituko zutelakoan. Ez da ahaztu behar, lehen kristau haiek uko egiten ziotela erromatarren enperadorearen erabateko botereari, eta gainera, esklaboen askatasuna aldarrikatzen zutela.

Halere, K.o. I. mendearen bukaerarako Mediterraneoko zenbait tokitan ezarrita zeuden kristau-elkarteak, eta baita Erroman bertan ere.



Zesar http://www.culturaclasica.com

- Guztion artean kristautasunaren hedapena azalduko duzue mapa tematiko baten bidez; ondoren, horma-irudi bat osatuko duzue mapa horrekin. Hasi baino lehen, gogoratu horrelako lan bat egiteko beharrezkoa dela taldean ongi antolatzea eta zereginak banatzea, aurreko orrietan azaldu genizuen legez.

  Azpian duzuen laukia mapa tematikoaren zirriborroa egiteko da; horma-irudia osatu aurretik informazioa berton biltzeko, alegia.

Kristauen jarrera erreboltari haren ondorioak laster nabaritu ziren; erromatarrek kristauen kontrako **jazarpenari** gogor ekin zieten, eta hainbat hildako eta martiri egon ziren Kristoren jarraitzaileen artean. K.o. 64. urtean, Neron enperadoreak kristauei leporatu zien Erromako sutea eta orduan hasi zen kristauen aurkako benetako jazarpena.

Koliseoa http://fanjacc.files.wordpress.com

- Internet baliatuz, bila ezazue bikoteka kristauen kontrako jazarpenei buruzko informazioa; bide batez, saiatu martiri batzuen izenak ere bilatzen.

Kristautasuna hedatzen hasi zenean, sinagogetan egiten ziren kristau-ikasbidearen predikazioak, gainerako erlijio-talde juduek egin ohi zuten bezala. Toki haietan, sarritan, kristauek ez zuten harrera onik, eta toki publikoetan eta plazetan saiatu ziren Kristoren hitza zabaltzen. Erromatarren pertsekuzioak hastean**, katakonbetan** aurkitu zuten babesa, eta hantxe ospatzen zituzten erritoak, lurperatzen zituzten hildakoak, eta euren doktrina edo ikasbidea irakasten zieten jarraitzaile berriei. Katakonba haiek hasierako kristautasunaren sinboloz dekoratuta zeuden.

Lehen kristauen sinboloak

- Arraina: Arraina da jatorrizko kristauen sinboloa; jarraitzaileak bide egokitik eramatea irudikatzen duen sinboloa omen da.

- Krismoia: Kristo izenaren lehen bi hizki grekoek osatzen dute (*Xpistós*). Konstantino Handia enperadoreak erabili zuen sinbolo hau K.o. IV. mendean, bere burua kristautasunarekin identifikatu nahi izan zuenean.

- Gurutzea da kristauen sinbolo ezagunena. Jesus gurutzean hil zutenean, agertu zen sinbolo hau, eta kristautasunean orokortu egin zen.

- Mahatsondoa eta usoa ere betidanik izan dira kristau-sinboloak. Mahatsondoaren orriak Kristoren odola irudikatzen zuen lehen kristauentzat.



Krismoia http://www.wikimedia.org *Gurutza* http://www.museo-oriental.es *Arraina* http://sp8.fotolog.com

Itun Berriaren osaera Kristautasunaren lehen mendeetan erabaki eta finkatu zen. Kristautasunaren sorrera eta lehen urratsak *Apostoluen Eginak* liburuan deskribatzen dira. Egilea hirugarren ebanjelioa idatzi zuen bera da, Lukas.

San Pauloren gutunak dira Itun Berrian kristauen lehen gertaerei buruz bereziki hitz egiten dutenak, nahiz eta beste apostolu batzuenak ere atal horretan izan. Zenbait pertsonari eta komunitate kristauri zuzenduta dauden hamalau gutun dira.

Paulo, Jakue, Petri, Joan eta Juda Tadeo apostoluen *Epistolak* eta *Apokalipsi* liburuek —azken hori San Joanek idatzia—, osatzen dute Itun Berriaren azken atala.

Apokalipsiko lau zaldizkoak http://www.editoriallapaz.org

- Apokalipsia esaten dugunean, hondamena edo antzeko zerbait esan nahi dugu. Badaude gaur egun apokalipsia edo munduaren amaieraren iragarpenari buruzko teoria eta data batzuk. Bilatu gai horri buruzko informazioa, eta azaldu zerikusirik dagoen iruzkin horien eta Itun Berriko *Apokalipsi* liburuaren artean. Egin ezazue lana bikoteka, eta arrazoitu beti erantzuna.

Kristauen errituak

Kristauentzat sakramentuen ospakizunean adierazten dira erritu garrantzitsuenak. Honako hauek dira **sakramentuak:**

- Bataioa: Fededunak komunitatean sartzea baimentzen du.
- Sendotza ematea: Jesu Kristorenganako fedea konfirmatzen du.
- Penitentzia: Bekatuak barkatzen ditu.
- Jaunartzea edo Eukaristia: Kristorekin egindako azken afaria gogoratzen du.
- Oleazioa: Hilzorian daudenei ematen zaie.
- Apaiz-ordena: Gizonezkoei aukera ematen die apaiz bihurtzeko.
- Ezkontza: Gizon eta emakume batek Jainkoaren aurrean batzen dituzte beren bizitzak.



Eukaristia http://santillanaldana.com

Lehen kristauentzat **Eukaristia** zen sakramentu funtsezkoena, eta eliza-errituak modu isilean ospatzen zituzten igandeetan, Jesusen berpizkundea egun horretan izan zelako. Egun meza kristauetan egiten den antzera, Jesusen bizitzako testuren bat irakurri ondoren, ogia (Jesusen gorputza) eta ardoa (Jesusen odola) bedeinkatzen zituzten. Komunitateko kideek ogi eta ardo hura jan eta edaten zutenean, Jesu Kristorekin bat egin edo komunioa ospatzen zuten.

Lehen kristau haiek bataioa ere ospatzen zuten Jesusen modura, hau da, uretan sartuta. Garai hartako beste erritu mota bat zen santuekiko eta martiriekiko gurtza; bereziki katakonbetan zeuden martirien erlikiak gurtzen zituzten (hildakoen gorpuzkinak).

Konstantino Handia enperadore erromatarrak **Milango Ediktuan** (K.o. 313. urtean) agindu zuen kristauen aurkako pertsekuzioak amaitzea, eta kultu-askatasuna aldarrikatu zuen. Izan ere, urte batzuk geroago (380) **Teodosio enperadoreak** Inperioko **erlijio bakarra eta ofiziala izendatu zuen kristautasuna**.

Kristautasuna erlijio ofiziala: Elizaren antolamendua

Kristautasunaren lehen mendeetatik egon ziren desadostasunak adierazten zituzten jarraitzaileak, hots, antzeko doktrinak zabaltzen saiatu ziren fededunak. Doktrina haiei **heresiak** deitu zitzaien.

Ondorioz, Kristau Elizak bere hierarkia indartu eta antolamendu sakon bati ekin zion. Hala nola, Erromako gotzain nagusia zen Done Petriren ondorengoa **Aita Santua** bihurtu zen, kristauen agintari nagusia. Gogoratu beharra dago Petri apostoluak sortu zuela lehen komunitate kristaua Erroman, Jesus hil ondoren.

Handik gutxira**, kontzilioak** ospatzen hasi ziren. Kontzilioetan elizako ordezkariak, gotzainak eta Aita Santua batzartzen ziren doktrinari eta antolamenduari buruz eztabaidatzeko.

Vatikanoa http://religionmc.files.wordpress.com/2009/04/vaticano.jpg

Kristauen artean sortzen ziren eztabaida eta heresiei aurre egiteko funtsezkoak izan ziren **elizako aitak** deitutakoak. Haietariko bat, Agustin Hiponakoa —ezagunagoa Agustin Donea izenaz— Afrikan (Kartagon) jaioa zen K.o. IV. mendean; estatuak Elizaren printzipioak jarraitu behar dituela defendatzen zuen Agustin Doneak. Pentsamendu edo filosofia hark K.o. XIII. mendera arte jarraitu zuen bizirik Europan.

Ez da ahaztu behar kristautasunaren lehen mende haietan agertu zela **monakotza**. Lehenengoz Egipton —artean erromatar probintzia—, baina laster zabaldu zen Inperioan zehar. **Eremitak** izan ziren lehen monje edo fraideak; basamortuan, bakardadean, txiro eta pietatezko bizitza zuten.

Kristauen egutegia

Kristauek, beste zenbait erlijiotan gertatzen den bezala, egutegi zibiletik aparte badute Jesusen bizitzaren gertaera garrantzitsuenak gogoratzen dituen **egutegi liturgikoa** ere. Nizeako Kontzilioan (K.o. 325) erabaki zen egutegi hori aldakorra izatea, kristauena ilargi-egutegia delako. Horregatik izaten da, besteak beste, Aste Santuaren data urtero desberdina.

Honako hauek dira egutegi horren denboraldi garrantzitsuenak:

Liturgia http://farm4.static.flickr.com

- Abendua: Gabonetarako prestakuntzaren denbora. Abenduaren hogeita bostetik **(Gabon** edo **Eguberria**) Errege egunera arte (**Epifania**) urtarrilaren seian Jesusen jaiotza ospatzen da.
- Garizuma: Aste Santua prestatzeko denboraldiari deitzen zaio horrela. **Hausterre-egunean** hasi eta Pazko-igandera arte irauten du (berrogei egun). **Aste Santua Erramu-igandean** hasten da, Jesusek Jerusalemen izan zuen sarrera arranditsua ospatzeko. **Ostegun Santuan**, Jesusen azken afaria gogoratzen da Eukaristia ospatuta. **Ostiral Santua** Jesusen heriotzaren eguna da, eta barau egiten da penitentzia gisa; edo, gutxienez, ez da haragirik jaten. Azkenik, **Pazko-igandea** Kristo berpiztu zela gogoratzeko eguna da kristauentzat.
- Pazkoa: Zazpi aste irauten du, Pazko-igandean hasi eta Mendekoste egunean amaitzen da, apostoluei Espiritu Santua etorri zitzaiela ospatzen den egunean. Juduengandik heredatutako jaia da, Itun Zaharrean uzta onen jaia ospatzen zutelako hebrearrek garai hartan.

- Arrazoi batengatik edo bestearengatik, denok egon gara noiz edo noiz meza kristau bat entzuten. Kontuan izanda kristautasunaren inguruko jarduera honetan orain arte ikasi duzuena, hausnartu eta saia zaitezte erlazionatzen meza baten agertzen diren testuak, hitzak, momentuak, ekintzak… ikasi duzuen zerbaitekin. Taldeka egingo duzue lana. Azpian duzuen laukian idatzi erantzunak.

Agora filma

Erromatar Inperioan kristautasuna erlijio ofiziala bihurtu zen unetik, kristauen egoera egonkortu eta gailendu egin zen, eta hurrengo mendeetan kristauak izan ziren antzinako erromatar edo paganoen kultuen kontra anker jokatu zutenak, muga gabeko krudelkeriaz.

Agora http://canales.diariovasco.com

Alejandro Amenabar espainiar zinema-zuzendariaren *AGORA* filma 2009ko urriaren 9an estreinatu zen. Egipton K.o. IV. mendean garatzen den drama historikoa da gaia. **Koptoek** (Egiptoko kristauek) erromatar kultu paganoen kontra egin zuten jazarpena eta suntsidura da, hain zuzen ere, filmaren argumentua.

Erlijioek sor dezaketen fanatismoaren kritika da *AGORA*, eta filma hau ikusi eta aztertuta emango diogu amaiera kristautasunaren atalari.

- Ikusi filma lasai, eta ondoren, taldeka, iruzkina egingo duzue honako puntu hauetan bereziki oinarrituz:

  - Garai hartako kristauen ankerkeria ikaragarrizkoa izan zen aurreko sinesmenekin lotura zuen guztiarekiko (esaterako, Alexandriako liburutegiaren kontua). Kristautasunarekin soilik gertatu izan dira halako ekintzak?

  - Hipatia, filmako protagonista, emakume aske eta landuaren eredu gisa agertzen zaigu. Kasu berezia edo arrunta al zen garai hartako gizartean? Arrazoitu erantzuna Kristautasunari edota beste edozein erlijiori buruz duzuen iritzi pertsonala baliatuta.

  - Kristauek Jesusen irakaskuntzak zehatz-mehatz jarraitu balituzte, zein beste amaiera izango zukeen filmak? Hausnartu, adostu taldean, eta asma iezaiozue filmari beste amaiera bat.

❖ Autoebaluazioa eta lanaren balorazioa

Lehen ebaluazioan egin zenuten moduan, bukatu berri dugun bigarren ebaluazioan ere ikasitakoaren balorazioa egingo duzue. Horretarako, hurrengo orrian dagoen kristautasunari buruzko eskema orokorra beteko duzue, eta ondoren, jarraian dituzuen testuak sailkatuko dituzue. Egindakoa lehendabizi bakarka zuzendu, eta gero taldeka. Azkenik, bigarren ebaluazioko balorazio orokorra egingo duzue denon artean.

► Adi!!!

- Hasi aurretik argi izan behar duzue ebaluazio-irizpideak zein diren.
- Autoebaluazioan zein beste kideen ebaluazioan serioski eta zintzo jokatuko duzue.
- Puntuazioak 1etik 5era izango dira; 1 nota baxuena eta 5 altuena.

Bakarkako ebaluazioaren irizpideak	Norberak	Lan-taldeak
1. Atera edukien probaren batez besteko emaitza.		
2. Arretaz irakurri dituzu erlijio-testuak.		
3. Ezagutzen dituzu ikasitako erlijioaren jatorria eta ezaugarriak.		
4. Saiatu zara bakarka eta taldearekin lanean.		
5. Ondo identifikatu dituzu informazio-iturri desberdinak.		
6. Gai izan zara testuak idatziz zein ahoz modu arrazoituan azaltzeko.		
7. Saiatu zara lanak txukun aurkezten.		
8. Gainerakoen sineskerak eta iritziak entzun, balioetsi eta errespetatu dituzu lanean.		
9. Adi eta errespetuz jokatu duzu eskoletan.		
10. Beste zerbait gehituko zenuke?		

Taldeko ebaluazioaren irizpideak	Norberak	Lan-taldeak
1. Arduraz eta errespetuz egin duzue lan taldean.		
2. Ikuspuntu guztiei erreparatu, eta elkar-lana adostu egin duzue beti.		
3. Saiatu zarete material egokia aurkitzen.		
4. Taldearen iritziak modu argian eta ziurrean defendatu dituzue.		
5. Lanak garaiz eta txukun entregatu dituzue.		
6. Beste zerbait gehituko zenukete?		

Edukien proba: Ebaluazio honetan bi atal izango dituzue edukien proba egiteko:

1. Eskema osatu
2. Testuak sailkatu

1. Eskema osatu: Erabil itzazue kristaut ra osatzeko beharrezkoak diren hi



2. <u>Sailkatu testuak</u>: Azaldu ezazue jarraian dituzuen testu biblikoen esanahia, eta esan judaismoari ala kristautasunari dagozkion testuak diren. Saiatu, baita ere, azaltzen zein une edo pertsonaiarekin lotuko zenuketen testu bakoitza.



«Neu nauzu Jauna, zeure Jainkoa, Egiptotik, esklabotzatik, atera zintuena».
«Ez izan ni beste Jainkorik».
«Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruan, behean lurrean nahiz lurpeko uretan dagoenetik».

«Gogoan izan larunbata, Jaunari sagaratzeko. Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginbehar guztiak burutuko. […] Ez egin inolako lanik egun horretan».

«Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak eta arrainak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari».

«Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzuen, zuek eskatu baino lehen. Zuek, egizue otoitz honela:
"Gure Aita zerukoa,
agertu santu zeure izena,
etorrarazi zeure erregetza;
betearazi lurrean zeure nahia, zeruan betetzen den bezala
emaguzu gaur egun honetako ogia […]».

Itsasoa http://www.abcfondos.com



Misná. R. Gamalielek esaten zuen: «Honako hauek dira agindutakoak bete nahi dituenak Pazkoan aipatu behar dituen hiru gauzak: Pazkoako bildotsa, ogi ailisa eta belar mingotsak. Bildotsa, Ahalguztiduna pasatu zelako gure arbasoen etxeetatik Egipton […] Horregatik, eskertu, goretsi, bedeinkatu, goraipatu eta adoratu egin beharko genuke esklabotzatik askatasunera atera gintuen Hura…».

«[…] Sortaldeko jakintsu batzuk azaldu ziren Jerusalemen, galdezka:
−"Non da juduen errege jaioberria? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta gurtzera gatoz".
Berri honekin larritu egin zen Herodes erregea, baita Jerusalem hiri osoa ere».

Biharamunean, jaietarako Jerusalemera etorria zen jendetza handia […] palmadarrak harturik, bidera atera zitzaion, eta oihuka hasi: *«Hosanna! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Bedeinkatua Israelen erregea*!».

Erosten harresia http://webpages.ull.es/users/fradive

- Bigarren ebaluazioan egin duzuen lanaren balorazioa adostuko duzue orain denon artean:

Bigarren ebaluazioko lanaren balorazioa

1. Edukiak:
   - Aspergarriak / Interesgarriak
   - Baliagarriak
   - Nahasiak
   - Ezagunak

   Zuen ustez, ba al dago sakonago ala azalagotik landu beharko litzatekeen edukirik?

2. Metodologia eta materiala:
   - Ariketa gustukoenak / aspergarrienak
   - Sekuentzia edo unitatea bera
   - Mapa tematikoa
   - Eztabaidak
   - Filma
   - Testu-zatiak
   - Informazioa biltzea

3. Amaitzeko eta laburbiltzeko, balora ezazue 1etik 5era amaitu berri duzuen unitatea:
   - Unitatearen edukiak
   - Erabilitako metodologia
   - Erabilitako materiala
   - Eskolen giroa eta abiadura.

Zer proposatuko zenukete emandako unitatea hobetzeko?

Iradokizunak:

7. Jarduera: Islama, hiru erlijio monoteista nagusietariko azkena

Kronologiaren arabera **islama** da hiru erlijio monoteistetatik (judaismoa, kristautasuna, islama**)** azkena. Islamaren abiapuntua, Kristautasunaren kasuan bezala, juduen erlijioa izan zen.

Islam hitzak mendetasun esan nahi du, eta erlijio horren jarraitzaileei **musulmanak** esaten zaie.

Musulmanak http://www.ojodigital.com

Islama K.o. VII. mendean sortu zen Arabian. Judaismoak eta kristautasunak izan zuten modu berean, Islamak liburu sakratu nagusi bat du oinarri: **Korana.** Eta aipatutako beste erlijio biek bezala, profeta bat izan zuten beraien jainkoaren, **Alaren**, hitza zabaltzeko: **Muhammad.**

Oharra:

Islamaren azalpen edo sarrera txiki bat besterik ez dut hemen egiten, hiru erlijio monoteista nagusietatik azkena izan baitzen, eta ikasleei hirugarren ebaluazioan irakasteko gaia izango delako**,** hiru erlijio nagusien eboluzioa eta gaur eguneko egoerarekin batera.

Halere, islamaren laburpen txiki hau hemen sartzearen arrazoi nagusia lanaren tituluari −Erlijio monoteista nagusien sorrera eta garapena− osotasuna ematea da.

Bibliografia

ZENBAITEN ARTEAN: *Elizen arteko Biblia,* BIBLI ELKARTE BATUAK, Lazkao, 1998.

ZENBAITEN ARTEAN: *Korana,* IBAIZABAL, Deustua, 2007.

ZENBAITEN ARTEAN: *Historia y Cultura de las Religiones 3*, ANAYA, Madril, 2007.

ZENBAITEN ARTEAN: *Historia y Cultura de las Religiones 3º ESO*, EDEBÉ, Bartzelona, 2007.

ZENBAITEN ARTEAN: *Historia y Cultura de las Religiones 2º ESO*, EDEBÉ, Bartzelona, 2007.

GAIAK ARGITALDARIA: *Erlijioak munduan,* GAIAK ARGITALDARIA, Donostia, 1997.

ARENAZA, Andoni: *Kristautasunari azterketa kritiko bat*, GAIAK, Donostia, 2007.

WEB ORRIAK: http://eu.wikipedia.org

http://es.wikipedia.org

http://enciclopedia.us.es

http://www.puntubi.com

http://www.sedin.org/doorway/34-monoteismo_primitivo.html

http://www.Bibliacristiana.com

Erlijio monoteista nagusien sorrera eta garapena

Irakasgaiak: Erlijio eta kulturen historia

Gaia: Politeismotik monoteismora/Judaismoa/Kristautasuna

Maila: DBHko 4. maila **Saio Kopurua**: 40

Proposamenaren testuingurua:

Erlijioen eragina ukatu ezin den fenomenoa da gizarteen kulturetan, eta edozein gizarteren eboluzioan dago presente.

Mendebaldeko gizartearen kulturan, Erromatar Inperioaren bukaerarekin batera ofiziala bihurtu zen erlijio kristauak izan zuen pisu handiena. Hala ere, kristautasunaren jatorria judaismoan zegoen, eta bi horietan oinarrituta islama sortu zen, zazpi mende geroago.

Bi sekuentzia hauetan, lehen pausoa edo helburua da ikasleak erlijioen eraginaz ohartzea, eta bereziki kristautasunaren kasuan, hurbilago ukitzen baititu. Bigarren helburua izango da gure kulturan eragina duen erlijioari buruz ahal duten informazio gehien bilatzea, sakontzea eta datu eta informazio horiek duten esanahiaz jabetzea.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna:** jarduera guztietan.
- **Teknologia digitala eta IKTak erabiltzeko gaitasuna:** jarduera guztietan.
- **Giza eta Arte kulturarako gaitasuna:** jarduera guztietan.
- **Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna:** jarduera guztietan.
- **Ikasten ikasteko gaitasuna:** jarduera guztietan.
- **Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna:** jarduera guztietan.

Helburu didaktikoak:

- Inguruneko erlijio-elementuak eta haien jatorria ezagutzea.
- Zenbait informazio-iturri identifikatzea.
- Erlijioarekin zerikusia duen hiztegia erabiltzen ohitzea.
- Erlijio-testuak irakurri eta aztertzea.
- Iritzi-testuak idaztea, ahoz azaltzea eta modu arrazoituan defendatzea.
- Testuen ideia nagusiak laburbiltzea.
- Historia eta erlijioaren ekintzak lotzen saiatzea.
- Mapa tematikoak egitea, interpretatzea eta iruzkinak egitea.
- Lanak txukun eta estetikoki dotore aurkeztea.
- Bakarka eta elkarrekin lan egitea.
- Gainerakoen sineskerak balioestea eta errespetatzea.
- Norberaren lana zein gainerako kideena zintzotasunez ebaluatzea.

Edukiak:

- Erlijioen eragina gaur egun.
- Monoteismotik politeismora.
- *Biblia*: erlijio monoteisten liburu sakratua.
- Judaismoa: 1. erlijio monoteista.
- Kristautasunaren sorrera.
- Kristautasuna Jesu Kristoren ostean.
- Islamari buruzko ideia oinarrizkoenak.

Jardueren sekuentzia:

1. **Aurkeztea:**
   - Testuak
   - Hausnarketa
   - Galderak

2. **Gauzatzea:**
   - Azalpenak
   - Ariketak
   - Definizioak

3. **Amaitzea:**
   - Eztabaidak
   - Jokoak
   - Filmak
   - Konklusioak
   - Eskemak
   - PowerPointak.

Ebaluazio-adierazleak:

- Ea erlijio-testuak identifikatu eta ulertzen dituzten.
- Ea antzinako erlijioen jatorria eta ezaugarriak ezagutzen dituzten.
- Ea mapa tematikoetan erlijioen mugimenduak adierazten eta interpretatzen dakiten.
- Ea Bibliaren inguruan ideia orokorra izatea lortu duten.
- Ea judaismoari eta kristautasunari buruzko ezaugarri garrantzitsuenak barneratu dituzten.
- Ea slamari buruz azaleko ideia bat bereganatu duten.
- Ea era askotariko ikuspuntuei erreparatu eta elkarlanean adosten ohitu diren.
- Ea norberaren eta taldearen iritziak modu argian eta ziurrean defendatzen dakiten.
- Ea norberaren eta gainerakoen lana zintzotasunez ebaluatzen ikasi duten.

Laneko irudiak

Erlijio eta kulturen historia
http://www.revistacaos.com/wp-content/uploads/2009/09/caricatura4.jpg

Eguzki-lorea
http://www.merrutxu.com/?p=113

Politeismoa 1
http://creencias.ning.com/group/politesmo

Animismoa
http://news.bbc.co.uk/media/images/38664000/jpg/_38664011_030107pascua300.jpg

Paganismoa
http://lauburu.fr/medias/26abc.jpg

Hiru erlijio monoteistak
http://ivansalcedo.files.wordpress.com/2008/08/war-r.jpg

Politeismoa 2
http://www.visionmiedo.com/wp-content/uploads/2009/07/dioses-griegoa1.jpg

Erlijio-gidariak
http://www.christiantoday.com/files/meast/meast_2005.jpg

Monoteismoa
http://lasteologias.files.wordpress.com/2008/03/miguelangel3la-creacion-de-adan.jpg

Eztabaida
http://www.lanacion.com.ar/archivo/anexos/fotos/71/4271.jpg

Biblia euskaraz
http://www.editorial.sanpablo.es/fichalibro.php?cod=6%2363%236631&id=2770

Korana
http://kinoticias.files.wordpress.com/2009/11/coran.jpg

Testu sakratua, hinduismoa
http://i42.tinypic.com/106h9g9.jpg

Belarra
http://hierbadeltrigo.files.wordpress.com/2009/05/quefuedeltrigoxh81.jpg

Erlijio-sinboloak
http://lh4.ggpht.com/_cWXisFHu2pc/SBiwp6p8blI/AAAAAAAAALI/fg1qMcQsWO8/Simbolos_Religiones+-+7.jpg

Biblos inguruko mapa
http://literatura.elbajio.com/images/literatura/Mapa1.gif

Biblia osatzen duten liburuak
http://ubdavid.org/espanol/cch/graphics/4_bible-books.gif

Adam eta Eva
http://elnirvana.files.wordpress.com/2009/12/adan-y-eva-durer.jpg

Noe eta Uholdea
http://cnho.files.wordpress.com/2009/12/arca-noe.jpg

Babelgo dorrea
http://www.vitruvius.com.br/arquitextos/arq000/imagens/115_3.jpg

Abrahamen bidaia
http://i73.photobucket.com/albums/i231/nabpeace/assyrianempire1800-627bc-1.jpg

Abraham
http://www.baroque.us/painting/lahire/abraham.jpg

Sodoma eta Gomorra
http://spa.fotolog.com/photo/42/5/9/ratimacarena/1220602123397_f.jpg

Moises Nilo ibaian
http://isabelmcristi.files.wordpress.com/2009/04/moises-nilo.jpg

Moises eta esklaboak
http://www.portalplanetasedna.com.ar/archivos_varios2/moises3.jpg

Moisesen bidaia
http://apologista.files.wordpress.com/2010/01/moisesabreelmar.jpg

Moises eta Hamar Aginduak
http://www.obrerofiel.org/library/attachments/Moises%20recibe%20los%20Diez%20Mandamientos.jpg

Egiptoko ihesa
http://lasteologias.files.wordpress.com/2008/10/ruta-tradicional-del-exodo.png

Hamar Aginduak hebreeraz
http://www.bnaiel.org/_storage/Pages/1034/tencommandments.jpg

Apokalipsia
http://www.nosdigital.com.ar/apocalipsis4.jpg

PowerPointa
http://portal.educ.ar/debates/eid/informatica/computadora-chica-1.jpg

Moisesen eskultura
http://peterpetrellisite.files.wordpress.com/2008/08/moses1.jpg

Sua
http://cms7.blogia.com/blogs/c/cl/cla/claraboya/upload/20080514003230-fuego.jpg

Zerua
http://3.bp.blogspot.com/_OzJ-GHYrHmU/SC9gnRBAFpI/AAAAAAAAAWM/iBwnHU5XD1U/s400/lluviaDeAngeles+Rosa+Maria+Medina.gif

Jerusalem
http://www.actualidadviajes.com/wp-content/uploads/2008/07/jerusalen3.jpg

Itunaren kutxa
http://almez.pntic.mec.es/~jgag0003/images/antiguo%20testamento/18el%20arca%20de%20la%20alianza.jpg

Tanaj
http://2.bp.blogspot.com/_uWVwWNsnkgs/SqzcTVaC2MI/AAAAAAAAAUM/BItTtCWuz-o/s400/biblia+antigua.jpg

Hebrear alfabetoa
http://us.123rf.com/400wm/400/400/fegu/fegu0803/fegu080300005/2629510.jpg

Sanson
http://amistadcuauti.files.wordpress.com/2008/10/sanson_y_el_leon.jpg

Filistearrak
http://www.soloporgracia.com.mx/galeria/antiguo-testamento/images/samgar-derrotando-a-los-filisteos-con-una-aguijada-de-bueyes_jpg.jpg

David eta Goliat
http://mercedicosas.files.wordpress.com/2008/10/davidygoliat1.jpg

Salomon
http://www.blogodisea.com/wp-content/uploads/2009/11/salomon-leccion-justicia.jpg

Profetak
http://elevangeliodelreino.files.wordpress.com/2009/10/displayfile.jpg

Jerusalemeko lehen tenplua
http://farm2.static.flickr.com/1205/1299841348_8dc1f86f74.jpg

Antzinako Grezia
http://farm2.static.flickr.com/1205/1299841348_8dc1f86f74.jpg

Herodes
http://www.galeon.com/juliodominguez/2008b/herodes.jpg

Nazareteko Jesus
http://chanfainatv.files.wordpress.com/2008/03/jesus01_b.jpg

Jerusalemeko bigarren tenplua
http://farm2.static.flickr.com/1205/1299841348_8dc1f86f74.jpg

Sinagoga
http://www.kalipedia.com/kalipediamedia/penrelcul/media/200707/18/relycult/20070718klpprcryc_437.Ies.SCO.jpg

David
http://farm4.static.flickr.com/3553/3389318836_4a8f54ff9b.jpg

Daviden izarra
http://img.webme.com/pic/o/oholyaohuhulhimnaciones/stardavid.png

Taldeko ebaluazioa 1
http://www.ikasquest.net/user_image/kfkhvt156037.jpg

Taldeko ebaluazioa 2
http://www.fao.org/DOCREP/005/Y4094S/y4094s1v.gif

Munduko bola
http://4.bp.blogspot.com/_zvZrppIcbXM/SYS3qjKb46I/AAAAAAAAAgI/6o6rnbuAkhQ/s320/mundo_azul_mano.PNG

Hamar Aginduak filma
http://www.decine21.com/EstructurasBd/Peliculas/N815/Imagenes/losdiezmandamientos1.jpg

Dibinitatea
http://centauro996.files.wordpress.com/2007/08/01_1024.jpg

Gurutzea
http://us.123rf.com/168nwm/okeen/okeen0903/okeen090300018.jpg

Azken afaria
http://mercurio.srv.dico.unimi.it/~marini/imaging/LAST_SUPPER/gif/ABDMAHL.gif

Palestinako mapa
http://www.vacationstogo.com/images/ports/maps/157.gif

Herodes hiltzailea
http://www.uni-koeln.de/ew-fak/Bildtheologie/diathek/kj3.009.jpg

Itun Berria
http://www.reclaimingthemind.org/images/Parchment%20and%20Pen/Dan/nt.jpg

Juduak
http://apologista.files.wordpress.com/2009/09/judios_oleolienzo79x99.jpg

Lau ebanjelariak
http://www.unav.es/sagradaescritura/asigs/nt1/gospels.jpg

Errege Magoen adorazioa
http://www.artelista.com/La-adoracion-de-los-Reyes-Magos-Washington-MS/01/mwm00710.jpg

Deikundea
http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/0/07/La_Anunciaci%C3%B3n_de_Fra_Ang%C3%A9lico.jpg

Iluntasuna eta argia
http://www.webislam.com/media/image/2005/01/fatiha_gr.jpg

Jesusen bataioa
http://nacerdenuevo.org/wp-content/uploads/2009/04/san_juan_bautista_jordan.jpg

Hamabi apostoluak
http://bendicionescristianaspr.com/wp-content/uploads/2009/08/jesus-escoge-doce-apostoles.jpg

Predikazioak
http://public.bay.livefilestore.com/y1p8u2Rp-n98PJYYYbTHxzpj73ibzThMFnKhvrrN_WnWv1Hyltq5u1gpFDDHwtcQ3C1RCZKmFddFCkxLO5UnQsxGQ

Harrikatzea
http://www.almamagazine.com/images/biblioteca/notas/el_mundo/interes_general/lapidacion_iran/lapidacion001.jpg

Mendiko sermoia
http://www.horaciobojorge.org/bienaventuranzas.jpg

Lazaroren berpizkundearen miraria
http://static.panoramio.com/photos/original/11752550.jpg

Kristoren heriotza
http://blogsantiagosoul.files.wordpress.com/2009/09/cristo-de-san-juan-de-la-cruz.jpg

Pietatea
http://didado.com.mx/images/R24006PiedadMiguelAngel.jpg

Berpizkundea
http://lumbrera.files.wordpress.com/2008/04/jesus_resucitado.jpg

Mendekoste
http://es.wikipedia.org

Hirutasun Santua
http://farm4.static.flickr.com/3392/3604754874_009f2e1547.jpg

Eliza
http://www.kalipedia.com/kalipediamedia/penrelcul/media/200707/18/relycult/20070718klpprcryc_488.Ies.SCO.jpg

Zesar
http://www.culturaclasica.com/files/Busto_piedra_Julio_Cesar.jpg

Koliseoa
http://fanjacc.files.wordpress.com/2007/07/20070709_coliseo.jpg

Krismoia
http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/b/b5/Labarum.svg/500px-Labarum.svg.png

Arraina
http://sp8.fotolog.com/photo/56/18/99/jesus_el_sumo/1261635146344_f.jpg

Gurutzea
http://www.museo-oriental.es/imagenes/piezas/Cruz%20de%20Amida.jpg

Apokalipsiko lau zaldizkoak
http://www.editoriallapaz.org/apocalipsis_desglose_graficas.jpg

Eukaristia
http://santillanaldana.com/img_upload/e5448eea86c87ec4aa220ed38b10532b/eucaristia.JPG

Vatikanoa
http://religionmc.files.wordpress.com/2009/04/vaticano.jpg

Liturgia
http://farm4.static.flickr.com/3220/3068074823_e9dbd68377_o.jpg

Agora
http://canales.diariovasco.com/ocio/_images/317x328/agora.jpg

Itsasoa
http://www.abcfondos.com/images/fondos-escritorio-mar.jpg

Erosten harresia
http://webpages.ull.es/users/fradive/historiacomparada/9representaciones/muroseparado.jpg

Meka hiria
http://josemireflexiona.files.wordpress.com/2009/10/mezquita-la-meca-arabia-saudi.jpg

Musulmanak
http://www.ojodigital.com/foro/attachments/sociales/48079d1241018244-los-himalayas-el-ganjes-el-hinduismo-y-el-ciclo-de-la-vida-17-para-clinsbud-_mg_7120-mejor.jpg

Biblia
ItunZaharra













DibujosBiblicos.NET



PowerPointa

Biblia: Itun Zaharra
http://www.elagoradeloslibros.com/Van%20Gogh_Biblia%20abierta,1885.jpg

Rebeka Esau eta Jakoben ama
http://rlv.zcache.com/rebekah_mother_of_nations_poster-p228632487831181489ygcp_400.jpg

Ramses II.a
http://media-cdn.tripadvisor.com/media/photo-s/01/01/7b/b6/temple-of-ramses-ii.jpg

Jakoben emaztea, Rakel
http://parroquiaicm.files.wordpress.com/2009/01/santa-raquel1.jpg

Urrezko zekorra
http://www.aplicaciones.info/valores/becerro2.jpg

Abrahamen emaztea, Sara
http://2.bp.blogspot.com/_Emw_msTHwU8/SpVsrNV2ZeI/AAAAAAAAALI/o8spVBmcl_E/s320/14.jpg

Moisesen anaia, Aaron
http://www.dibujosbiblicos.net/data/media/89/MoisesAaronHur.jpg

Hammurabi
http://duhaime.org/Portals/duhaime/images/Hammurabi_Code.jpg

Noeren arbasoa, Set
http://www.centrorey.org/dias_noe04.jpg

Kain eta Abel
http://www.centrorey.org/dias_noe04.jpg

Lot
http://urodovic.files.wordpress.com/2009/01/islotswife1.jpg

Moisesen makila sugea bihurtu
http://www.xtec.cat/sgfp/llicencies/200203/memories/prodriguez/antiguotestamento/imagenes/moisesbastonserpiente.jpg

Josefen ametsak
http://www.tubiblia.net/wp-content/uploads/2008/09/jose_interpreta_sueno_faraon.jpg

Moises eta sasia sutan
http://1.bp.blogspot.com/_3TunD3CK3vE/S5GjhyCGi6I/AAAAAAAABXY/05aogckvNhw/s400/moises_zarza_ardiendo.jpg

Beduino nomadak
http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/7/74/Hoggar_caravane2.jpg/250px-Hoggar_caravane2.jpg

Zirkunzisioa lehenengoz egin
http://layijadeneurabia.com/wp-content/uploads/2010/01/circuncision_oleolienzo46x55.jpg

Hamar izurriak
http://api.ning.com/files/ladTnrk3J*xM9Bb-DspaI0c6Syqypl5Z*tpFJPVMSUjFL*uZgoYFwE8VXxKWUfdkByt6eOcKVOIdGHNqtQtHZ4PkJAZVilUM/PLAGADELASRANAS.jpg

Asiriar Inperioa
http://4.bp.blogspot.com/_JK8mviw_3e4/SE1bphKSZEI/AAAAAAAABbg/-r6LBH2EDqc/s400/acarro.jpg

Ortzadarra Jainkoaren pozaren seinale
http://g.imagehost.org/0005/arcoiris0pt.jpg